

HEZKUNTZA ETA KIROL FAKULTATEA
Lehen Hezkuntzako Gradua
Ikasturtea: 2020-2021

“AMA LURRAREN BILA”
GORPUTZ HEZKUNTZAREN ESKUTIK NATURARA HURBILTZEKO
PROPOSAMEN DIDAKTIKOA

EGILEA: Sánchez Errazkin, Asier

ZUZENDARIA: Etxeazarra Escudero, Ibon

Data, 2021/06/24

Laburpena

Azken mendeetan eginiko aurrerakuntza teknologikoek gizartea sedentarismorantz bultzatu dute, gizakia naturatik aldentzea eraginez. Gertaera honek guregan dituen ondorio kaltegarriak ekiditeko, joera hau aldatu beharra dago eta hezkuntzak naturarekin birkonektatzeko aukera bikaina eskaintzen digu. Gradu Amaierako Lan honek helburu hau lortzeko lagungarria den ekarpen bat egitea bilatzen du, Gorputz Hezkuntzaren eskutik naturara hurbiltzeko proposamen didaktiko bat garatuz. Horretarako, lanaren lehenengo atalean oinarri teoriko bat garatuko da, natur jarduerak gure gizarte eta hezkuntza sisteman duten papera aztertzeko. Honetan oinarrituz, bigarren atalean testuinguru espezifikoko baterako proposamen didaktiko bat garatuko da, zeinek ziurgabetasuna duten eta gure kultura motorraren parte diren jardueren bitartez, ikasleak naturara hurbiltzea helburu duen.

Hitz gakoak: Gorputz Hezkuntza, natur jarduerak, kultura motorra

Resumen

Los avances tecnológicos que hemos tenido a lo largo del último siglo nos han llevado hacia una sociedad sedentaria, alejando así al ser humano de la naturaleza. Para evitar las graves consecuencias que esto implica, hay que ir en contra de esta tendencia, y para ello, la educación nos ofrece una excelente oportunidad para reconectar con la naturaleza. El presente Trabajo de Fin de Grado busca hacer una aportación para cumplir este objetivo, mediante una propuesta didáctica para acercar al alumnado a la naturaleza a través de la Educación Física. Para ello, en la primera parte del trabajo se va a desarrollar una base teórica, donde se analizará el lugar que ocupan las actividades en la naturaleza en nuestra sociedad y educación. En la segunda parte, partiendo de la base teórica, se desarrollará una propuesta didáctica para un contexto específico, la cual busca acercar a los alumnos a la naturaleza, mediante actividades con incertidumbre que forman parte de nuestra cultura motriz.

Palabras clave: Educación Física, actividad física en la naturaleza, cultura motriz

AURKIBIDEA

1. Lanaren xedea	1
1.1 Justifikazioa.....	1
1.2 Helburuak.....	2
2. Oinarri teorikoa.....	3
2.1 Naturarekin lotura galdu duen gizartea.....	3
2.2 Naturarekin birkonektatzen laguntzea, hezkuntzaren ardura	5
2.3 Natur jarduerak Euskal curriculumean.....	9
2.4 Natur jarduerak praktikan jartzeko zailtasunak.....	13
2.5 Natur jarduerak Gorputz Hezkuntzan praktikan jartzeko eredua: Norvegiako <i>friluftsliv</i> -a	16
2.6 Oinarri teorikoaren ondorioak	19
3. Proposamen didaktikoa.....	20
3.1 Sarrera.....	20
3.2 Ikastetxearen testuingurua eta ezaugarriak	20
3.2.1 Proiektuen Bidezko Metodologia.....	21
3.2.2 Testuinguruaren abantailak eta mugak.....	22
3.3 Gorputz Hezkuntza eta natura lotzen dituen proposamen didaktiko.	24
3.4 Lotura kurrikularra	26
3.4.1 Curriculumeko gaitasunekiko lotura	27
3.4.2 Curriculumeko eduki multzoekiko lotura	28
3.5 Gaitasunak eta ikaskuntza emaitzak.....	28
3.6 Ebaluazio metodologia eta tresnak	30
3.7 Proposamen didaktikoaren garapena: Ama lurraren bila	32
4. Ondorioak eta hausnarketa pertsonala.....	59
5. Bibliografia	60

IRUDIEN AURKIBIDEA

1. Irudia. Natur jardueren ezaugarriak hezkuntza arloan.....	7
2. Irudia. Espazioaren ziurgabetasuna Heziketa Fisikoko saioetan.....	12
3. Irudia. Heziketa Fisikoan natur jarduerak egitea mugatzen duten faktorea	13
4. Irudia. Ikastetxearen kokapena eta gertuko ingurune naturalak.....	23

1. Lanaren xedea

Gizartea garatzen eta eraldatzen joan den heinean gizakiok naturarekiko dugun erlazioa aldatzen joan da, gizarte sedentarioago batean bilakatuz eta naturatik geroz eta gehiago aldentuz. Gertaera honek guregan dituen ondorio kaltegarriak ekiditeko joera hau aldatu beharra dago, eta hezkuntzak naturarekin birkonektatzeko aukera bikaina eskaintzen digu. Honetatik abiatuz, Gradu Amaierako Lan honetan natur jarduerak gaur egun gure bizitzan duten lekua eta papera aztertuko da, bai eta egoera honek guregan eragiten dituen ondorio desberdinak ere.

Lehen Hezkuntzako graduako ikaslea izanik, azterketa teoriko hau hezkuntza ikuspegi batetik aurrera eramango da, bereziki Gorputz Heziketa ikasgaiaren zentratuta. Honetarako, gure herrialdeko eskoletan eta hezkuntza sisteman natur jarduerari ematen zaien garrantzia aztertuko da, ikerketa desberdinetako datuak eta Heziberri 2020 Curriculum Dekretua behatuz. Guzti honek gure hezkuntza eta kulturak natur jarduerari ematen dien garrantzia behatzea ahalbidetuko digu, gure ereduaren beste hezkuntza eredu batzuekin alderatzeko aukera emanez.

Lanaren bigarren zatian, oinarri teoriko honetatik abiatuz proposamen didaktiko bat garatuko da, testuinguru erreal baterako diseinatua dagoena. Proposamen honen helburu nagusia ikasleek gure kultura motorraren ondare diren jarduerak desberdinen eskutik naturara hurbiltzeko eredu bat eratzea da, ziurgabetasuneko egoeretan jardunez.

1.1 Justifikazioa

Gradu amaierako lan baten gaia aukeratzeko orduan, arrazoi pertsonal zein akademiko desberdinek eragin dezakete eta nire kasuan bi arlo hauen arteko oreka bilatuz, ikasleak Gorputz Hezkuntzaren bitartez naturara hurbiltzeko proposamen didaktiko bat egitea erabaki dut.

Alderdi pertsonalean, natur jardueren inguruan irakurri eta idatzi nahi izanaren jatorria 2019. urtean zehar Norvegiar egin nuen Erasmus programan dago. Urte horretan Jarduera Fisiko eta Kirolaren Zientzien gradua egiten nengoen eta esperientzia berri bat bizitzeko asmoarekin, Norvegiara joan

nintzen. Bertan, norvegiarren kultura, ohiturak eta pentsamoldea ezagutzeko aukera izan nuen, haiek naturarekiko duten erlazioa hobeto ulertuz.

Norvegiarren gizartean naturak oso paper garrantzitsua dauka eta hau gizarteko arlo desberdinetan behatu daiteke. Nire kasuan, bertako ikastetxe desberdinetan praktikak egiteko aukera izan nuen eta honi esker Norvegiako ikastetxeetan natura tratatzeko modua lehenengo pertsonan bizi nuen, ikasleek naturarekin duten erlazioa behatuz.

Esperientzia honetatik batez ere gure eta norvegiarren artean hezkuntza arloan natur jardueren inguruan dagoen desberdintasunak harritu ninduen eta hango irakasle desberdinekin solasaldi ugari izan ondoren, etxera bueltatzean gure hezkuntza sisteman natur jarduerak duten lekua hobetzeko ahalegina egingo nuela promestu nion nire buruari.

Hau kontutan hartuta, Lehen Hezkuntzako graduan Gradu Amaierako Lan bat egiteko momentua iritsi zen unean, oso argi izan nuen hasieratik gaia natur jarduerekin erlazionatua egotea nahi nuela. Tutorearekin hitz egin eta ikuspuntu desberdinak baloratu ondoren, proposamen didaktiko bat egitea erabaki nuen. Proposamen didaktiko bat egiteak zituen abantailak orokorrean bi ziren: alde batetik oinarri teoriko sendo baten prestaketa beharrezkoa zela eta bestetik proposamena kontestu espezifiko batera egokitu behar zela, lana esanguratsuagoa eginez.

1.2 Helburuak

Lan honen bitartez hurrengo helburuak lortzea bilatzen da.

- Helburu orokorra:
 - Ikasleak natur inguruneetara hurbiltzeko proposamen bat egitea, oinarri teorikoan islatzen diren beharrak kontutan hartuz.

- Helburu espezifikoak:
 - Natur jarduerak gure kulturaren duten lekua aztertzea.
 - Testuinguru zehatz batean aplikagarria den proposamen bat diseinatzea.
 - Natur jardueren hezkuntza potentziala ikusaraztea.

2. Oinarri teorikoa

2.1 Naturarekin lotura galdu duen gizartea

Gaur egungo gizarte post-industrialia, teknologia berrietan guztiz murgilduta dagoena, natura eta ingurumenari bizkarra emanaz bizi da eta joera honek eragin nabaria dauka biztanleen jarreran, ohituretan zein haien bizitza kalitatean (Zulaika, Ros, Zuazagoitia, Echeazarra eta Ibañez 2020). Eboluzio honek gure bizitzetako hainbat arlotan eragiten du: osasunean, aisialdirako denboran, kulturean, baloreetan eta natura eta gizakiaren arteko erlazioan besteak beste (Abella, 2007 eta Freire, 2011).

Historian zehar gizakia eta natura estuki erlazionatuta egon dira eta milaka urtez natura izan da gizakion hazkuntza testuinguru nagusia (Pérez eta Caballero, 2009). Hasieran erlazio hau saihestezina zen, gizakiok bizirauteko naturan bizi eta erlazionatu behar genuelako, baina gizartea garatzen joan zen heinean, geroz eta sedentarioagoa bilakatzen hasi zen, naturatik aldentuz.

Lladós-en (2018) esanetan, azkeneko mendean zehar gizartearen bilakaera hau oso nabaria izan da eta gure bizitza estiloak aldaketa sakona jasan du mende bakar batean. Duela 100 urte pertsona gehienak landa eremuetan bizi ziren, naturarekin kontaktuan eta naturari esker bizitzen. Industrializazioaren ondorioz hirugarren sektoreko lan eskaintza kopurua igo zen eta honek, teknologiaren garapenarekin batera, familia asko hiri handietara lekualdatzea eragin zuen.

Teknologiaren garapen honek eta bizi kalitatearen hobekuntzak, geroz eta mugimendu eta energia gutxiago eskatzen duten jarduerak egitera bultzatzen gaituzte, bai lanean (ofizinetan eserita egotea, etxetik lan egitea...) eta bai gure aisialdiko denboran ere (bideo-jokoak, pelikulak...) (Varela-Moreiras, 2013). Aldaketa guzti hauek natura eta gizakiaren artean dagoen erlazioa ahaztea eragin dute. Hau dela eta Venero-k (2007), beste hainbat egileren artean, "hiri handietako biztanleek naturara bueltatzeko duten beharra (53. or)" aldarrikatzen du.

Bizi dugun errealitate hau Covid-19 egoerak are eta gehiago azaleratu du, eta hau argi eta garbi behatu daiteke gure herrialdeko ikastetxeetan. Hainbat eta

hainbat berri eta gomendiotan entzun dugun bezala, Covid-19-a kutsatzea galarazteko segurtasun distantziak, espazio irekiak eta kontaktua ahalik eta gehien murriztu behar dira. Gomendio hauek kontutan hartuz, Heziketa Fisiko eta Kirolaren Kontseilu Nagusiak (2020) Espainiako Kirol eta Jarduera Fisikoaren Aldizkarian proposamen desberdinak egiten ditu, Heziketa Fisikoko saioetan praktikan jartzeko. Proposamen hauen artean hurrengo irakurri daiteke "zentro barruan eta kanpoan dauden aire libreko espazioei lehentasuna eman (patioak, zona berdeak, parke hurbilak); kontakturik gabeko jardueri lehentasuna eman; materiala partekatzea saihestu (85. or)". Proposamen guzti hauek aztertuz, natur jarduerak egoera honi soluzio bat emateko aukera bikaina bezala aurkezten dira. Baina ideia honetatik urrun, gure ikastetxeetako errealitatea oso desberdina da eta zentro gehienetan ez dira natur jarduerak aukera bezala ere kontutan hartu.

Geroz eta sedentarioagoa den gizarte batean bizitzeak, gizartea naturatik banatzera eraman du (beste kalte askoren artean) eta ondorioz, geroz eta jarduera fisiko gutxiago egitera. Azken urteetan egindako ikerketa ugari errealitate hau ikusarazten dute eta honen adibide Centers for Disease Control and Prevention (2012) eta Valencia-Peris, et al.-ek (2014) egindako ikerketak ditugu. Lehenengo ikerketa hau Estatu Batuetan egin zen eta bertan behatutako gazteen % 28.7-ak bakarrik egunero gomendatuta dagoen jarduera fisiko kopurua egiten zutela frogatu zuten (CDC, 2012). Ildo beretik Valencia-Peris, et al.-ek (2014) Espainiako gazteek pantaila baten aurrean igarotzen duten denbora ikertu zuten eta emaitzek erakutsi zuten Espainiako gazte eta nerabeek batz bestea egunean hiru ordu igarotzen zituztela pantaila baten aurrean eta gainera hauetako % 27.2-a zegoen bakarrik gomendatutako bi orduen azpitik.

Aipatutako datu hauek gure osasunean eragiten duten kaltea nabaria da, bai maila fisiologikoan bai maila psikologikoan. Jarduera fisiko ezak hainbat arazo kardiobaskular jasateko aukerak handitzen ditu, hala nola: odol presio altua, diabetesa eta obesitatea izatea (Finn et al., 2018). Aldi berean, etxe barruan eta pantaila baten aurrean egoteak beste motatako gaixotasun batzuk jasateko aukera ere handitzen du. Izan ere, honek guzti honek argi naturalaren defizit bat izatea eragiten du eta Saw et al.-en (2001) esanetan, hau gure ikasleen artean miopia kasuak gehiagotzearen eragile nagusietako bat da. Eguzki argiak

gure gorputzak dopamina jariatzea eragiten du eta honek haurtzaroan zehar begia handitzea inhibitzen du, miopiaren agerpena eta garapena frenatuz.

Maila psikologikoan, natura faltak osasun mentalean zuzenki eragiten du eta Rodriguez-ek (1984) zehazten zuen moduan, gaur egungo egoerak gizakiongan espontaneitatea eta alaitasuna galtzea eragin du. Hau Louv-ek (2011) esandakoarekin bat dator, izan ere bere ustez ume eta gazteak geroz eta estres handiagoko egoeretatik pasatzen dira eta naturatik aldentzeak nahasmen fisiko eta psikiko desberdinak eragin ditzake. Ildo hau jarraituz Freire-k (2011) behatu zuen gaur egun umeek jasotzen dituzten estimulu gehienak bi bideetatik jasotzen dituztela: entzumenetik eta bide bisualetik. Honek umeengan neke sentzorial bat sortzea eragiten du eta guzti hau haserrealdia eta jarrera oldarkor desberdinen bitartez azaleratzen dute.

2.2 Naturarekin birkonektatzen laguntzea, hezkuntzaren ardura

Guzti honen ondorioz, gizakiok berriro ere naturarekin konektatzea ezinbestekoa da eta horretarako hezkuntza tresna paregabea izan daiteke (Lladós, 2018). Erronka handia aurkezten zaigu aurrean, izan ere, gizartea hainbeste banandu da dagoeneko mundu naturaletik, gaur egun ez dugula natura gure garapenerako eta hazkuntzarako aukera bat bezala ikusten (Kellert, 2005).

Arazo hau hala ere ez da berria, Errenazimendu garaian dagoeneko ohartu ziren natur jarduerak egitearen garrantziaz. Garai honetan zehar, gorputza ikerlarien aztergai bilakatu zen eta aire zabalean egindako gorputz jardueren potentzial formatiboa baloratzen hasi ziren, jarduera fisikoa hezkuntza sisteman sartuz (Funollet, 1989). Gaur egun, J. J. Rousseau mugimendu honen aitzindari bezala kontsideratzen dugu, bere "L'Emilie" lanagatik (XVIII. mendean). Berak umeak heldu bezala portatzea galarazi nahi zuen eta hau naturaren bitartez lor zitekeela uste zuen. Bere esanetan, "Hezkuntza naturatik, gizakietatik eta gauzetatik dator." Rousseau-z gain, historian zehar beste hainbat egilek, haien artean Montaigne, Basedow, Pestalozzi, Amorós eta Hébert, naturak duen hezkuntza potentziala azpimarratu dute, batez ere mugimenduaren bitartez ume eta gazteen garapenerako kontestu paregabe bezala (Pérez eta Caballero, 2009).

Natur jarduerak hezkuntzaren parte izan behar direla geroz eta argiago dago (hamarkadak daramatzagu honetaz ohartzen) eta naiz eta natur praktikak geroz eta ugariagoak diren, oraindik ez dira hezkuntza sistemaren parte (Baena eta Ganero, 2008). Jarraitu baina lehen, argitu behar da gaur egun modu askotariko natur jarduerak existitzen direla eta jarduera hauek orokorrean 3 multzo handitan sailkatu daitezke: aisialdiko natur jarduerak, kiroleko natur jarduerak (errendimendura bideratuak, federazioen bitartez) eta hezkuntzara bideraturiko natur jarduerak (Peñarrubia et al., 2016).

Lan honetan natur jarduerak hezkuntza ikuspegi batetik landuko dira, Gorputz Hezkuntza irakasgai bereziki. Hezkuntza helburu batekin egiten diren natur jarduerak Parra-k (2001) honela definitzen ditu: "praktika motorrak dira, osagai ekofisiko-edukatibo (ingurumen-hezkuntza eta heziketa fisikoaren arteko erlazioa) eta ludiko batekin, non gizabanakoak modu global eta integral batean jarduten duen, natur ingurunean garatzen den kontzientzia ekologikoaren behar batekin (35. or)".

Hezkuntza ikuspuntu batetik, natur jarduerak natur esperientzian oinarritzen diren egoera pedagogikoak planteatzen dituzte, zeintzuk aplikagarritasun zuzena duten ume eta gazteen bizitzan (Santos eta Martinez, 2011). Natur jarduera hauetako bizipenetan partehartzailea konflikto, dilema eta aukeraketa desberdinen aurrean kokatzen da eta honi ezker jarrera erreflexibo bat bultzatzen da, bakoitzaren gaitasun, muga eta interesak hobeto ezagutu ahal izateko (Caballero, 2014).

Naturan egindako jarduera fisikoaren hezkuntza potentziala, hau praktikatzen den inguruneak eta bertan egin daitezkeen jarduera motek baldintzatzen dute (Caballero, 2012). Izan ere Baena eta Granero-k (2008) adierazten duten bezala, naturaren izaera aldakorra praktika hauek azken urteetan jasan duten hezkuntzaren adierazle nagusia bilakatu da, eta bere esanetan praktika hauetan ematen diren etengabeko aldaketek sortutako ziurgabetasunak definitu eta bereizten ditu natur jarduerak gainontzeko jardueretatik.

Gorputz Hezkuntzan praktikatzen diren jarduera guztiek ezaugarri zehatz batzuk dituzte, joko-jolasen barne logika definitzen dutenak. Parlebas-ek (2001) jarduera desberdinak sailkatzeko hiru parametro desberdin definitu zituen: ingurunearekiko erlazioa, kideekiko erlazioa eta aurkariekiko erlazioa.

Kideekiko zein aurkarietara erlazioa, edozein kontestu eta helbururen arabera moldatu daiteke, baina ingurunearekiko erlazioa aldiz jarduera bakoitza praktikatzeko dugun lekuetatik mugatuta dago.

Hau horrela izanda, jarduera motor bat aldaketarik jasotzen ez duen leku batean praktikatzeko bada (kiroldegi edo gimnasio batean adibidez), jarduera hori ingurune zihur batean egin dela kontsideratzen da, baina aldiz partaideak inguruneak eskaintzen dion informazioa kudeatu behar badu eta honen arabera erabakiak hartu (naturan adibidez), jarduera motor hori ingurune zihur batean burutu dela kontsideratzen da (Parlebas, 2001). Honekin oinarrituz, natur jarduerak jarduera motorren sailkapenaren ezaugarri zehatz bat (ingurunearekiko zihurabetasuna) lantzeko aukera nagusia bezala aurkezten dira.

Honetaz gain, natur jarduerak beste hainbat onura eskaintzen dituzte hezkuntza mailan eta onura guzti hauek bateratzeko Caballero-k (2012) hurrengo proposamena egiten du, ikerlari desberdinen lanetan oinarrituz.



1. Irudia. Natur jardueren ezaugarriak hezkuntza arloan. (Caballero, 2012-tik euskaratua eta egokitua)

- Natur ingurunean egiten dira. Ingurune hau zabala, ezezaguna eta aldakorra da, eta estimulu ugari eskaintzen ditu.
- Naturarekin elkar eragitea ahalbidetzen du. Natura ezagutzeko, bizitzeko eta gozatzeko aukera ematen digu, beranduago hau baloratu eta errespetatu ahal izateko.

- Ziurgabetasuna edozein natur jardueraren berezko ezaugarria da eta abentura sentazioa sortzen du. Proposatutako jarduerak erronka moduan aurkezten direnean motibazio handia sortzen du partehartzaileengan.
- Arriskua bere bi dimentsioetan aurki daiteke natur jardueretan: arrisku objektiboa (istripu bat izateko arriskua), irakasleek ahalik eta gehien murrizten dutena jardueraren segurtasuna bermatzeko; arrisku subjektiboa (arrisku sentazioa) jardueraren arabera moldatu daitekeena, honen onurarako.
- Motrizitatea interakziorako tresna bezala: beste pertsonetikiko eta ingurunearekiko interakzioa motrizitatearen bitartez lortzen da, hau da, gorputza eta honen mugimenduaren bitartez.
- Bizipen izaera du: natur jarduerak bizipen pertsonal ugari izateko aukera eskaintzen dute eta hausnarketa batekin batera, garapen pertsonal eta sozialerako balio berezi bat ematen diote.
- Inplikazio emozional altua: parte-hartze aktiboak eta inplikazio globalak (maila kognitibo, fisiko, sozial eta emozionalean) natur jarduerak sentazio eta emozio biziak sortzea eragiten du.
- Izaera soziala du: konfliktu errealak suertatzen dira; hezkuntza ikuspuntu batetik garapen pertsonalerako aukera bezala aurkezten da eta aldi berean giza erlazioak dinamizatzeko baliagarria da.

Arrazoi hauengatik irakasle bezala natur inguruneak ume eta gazteen interbentzio pedagogikorako ingurune bezala aprobetxatu behar ditugu, haiengan ingurune honek eskaintzen dituen hezkuntza baloreak indartuz. Granero eta Baena-k (2007) azaltzen duten bezala, "natura, munduan dagoen Heziketa Fisikorako gimnasio handiena kontsideratu daiteke, eta hainbeste hezkuntza aukera eskaintzen ditu, haren aldean beste edozein hezkuntza-ingurumen txikia geratzen dela (6.or)". Heziketa Fisikoaren arloan hezkuntzak eskaintzen dituen baliabide eta kontestu guztiak erabiltzea ezinbestekoa da ikasleen garapen integrala lortzeko, bereziki gaur egun gaitasun eta trebetasun motorrek duten garrantzia kontutan hartuta (Baena eta Granero, 2008).

2.3 Natur jarduerak Euskal curriculumean

Orain arte aipatutakoarekin behatu daiteke gaur egun hezkuntza eta ikerketa esparruan natur jardueren potentzial pedagogikoa nabarmentzen duten egile eta pedagogoak ugariak direla, baina gure inguruan dugun errealitate akademikoa oso desberdina da (Caballero et al., 2018).

Natur jarduerak gaur egungo hezkuntza sisteman duten garrantzia eta pisua aztertzeko, gure herrialdean indarrean dagoen hezkuntza plana aztertu behar da. Euskal Autonomia Erkidegoaren (EAE) kasuan hezkuntza sistema Heziberri 2020 Curriculum Dekretuak erregulatzen du, bai Lehen Hezkuntzan eta bai Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan ere. Tradizionalki natur jarduerak curriculumetik kanpo egon dira, hauek dituzten ezaugarriengatik eta hauek praktikatzeko diren inguruneengatik (Baena eta Granero, 2008). Gaur egun natur jarduerak gure herrialdean duten egoera aztertzeko, jarraian Heziberri 2020 Curriculum Planaren analisia burutuko da.

Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. zikloetako **“Konpetentzia motorreko”** edukiak aztertuz, behatu daiteke ez dagoela natur jardueren inguruko eduki multzo zehatzik. Jarduera hauei erreferentzia bakar bat egiten zaie, 2. zikloko edukien 5. multzoan (Kultura motorra: aisia eta denbora librerako hezkuntza):

- Ariketa fisikoa eta kirolak egitea natura-ingurunean, ingurumen-inpaktu arina eginez eta ingurumena zaintzen lagunduz.

Curriculumaren Lehen Hezkuntzako edukietan aipagarria da **“Konpetentzia sozial eta zibikoan”** naturari eta natur ingurunea zaintzeari erreferentzia desberdinak egiten zaizkiola, 2. zikloko 2. eduki multzoan (Bizikidetzeta eta gizarte-balioak):

- Bizi den ingurunean eta irteera eta txangoetan natura eta ingurumena zaintzea, eta herritarren kanpainetan laguntzea.
- Hainbat motatako baliabide naturalak erabiltzean ohitura kontserbazionistak hartzea.
- Baliabide naturalak gizakien egungo eta etorkizuneko ondare komun gisa balioestea.

Etapa honetako ebaluazio-irizpideak eta lorpen adierazleak aztertzerako orduan, **“Konpetentzia motorrean”** ez da natur jardueren inguruko aipamen zehatzik egiten, baina ingurune ezezagunei aldiz erreferentzia egiten zaie, Lehen Hezkuntzako 2. zikloko ebaluazio-irizpideetan:

- Ezezagunak eta zalantzarriak diren ingurune askotarikoetan egokitzea, lekualdatzeak eta jauziak.

“Konpetentzia sozial eta zibikoaren” kasuan, natur inguruneei erreferentzia zuzena egiten zaie, 13. ebaluazio irizpideetan bereziki:

- Natura-ondasunak arduraz erabiltzea eta ingurumenaren kontserbazioan laguntzea, gertaerak ulertuz eta interpretatuz, arrazoiak aztertuz eta ondorioak aurreikusiz.

Curriculumaren azterketa honekin Gorputz Heziketaren kasuan natur jarduerak duten babes kurrikularra nahiko txikia dela behatu daiteke. Izan ere, curriculumaren antolamendua aztertuz natur jarduerak (ziurgabetasun ingurunean egiten diren jarduerak) **“Konpetentzia motorrean”** barnean eduki multzo definitu bat ez dutela behatu daiteke, eta beste eduki multzo baten azpiatal bat bezala aurkezten dira (Kultura motorra: aisia eta denbora librerako hezkuntza). Honek, irakasleek natur jarduerak haien programazioan sartzea zailtzen du, hezkuntza sistemak beste konpetentzia eta eduki batzuei lehentasun eta garrantzia handiagoa ematen dielako.

Babes kurrikular egokia eskaintzen duen eredu bat bezala, Aragoiko curriculumean Gorputz Hezkuntzako edukiak antolatzeko duten eredu behatu dezakegu. Curriculum honetan edukiak akzio motor mota desberdinen arabera antolatzen dituzte: akzio motor indibidualak, oposiziozkoak, kooperazio eta kolaborazio-oposiziozkoak, natur ingurunezkoak eta artistikoak (Aragoiko Curriculum, 2016). Sailkapen honek, natur jarduerari beste jarduera mota guztietatik desberdintzea ahalbidetzen die eta eduki multzo bakoitza lantzea ezinbestekoa denez, babes kurrikular handiagoa eskaintzen du.

Euskal Autonomia Erkidegoko Lehen Hezkuntzako curriculumean dugun egoerari kontrajarriz, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako curriculumean natur jardueren inguruko aipamenak ugariagoak dira, etapa honetako maila desberdinetako eduki, lorpen adierazle eta ebaluazio irizpideen kasuan.

Jarraian honen adibide bat ikusi daiteke, 1. mailako **"Konpetentzia motorreko"** edukien 4. multzoan:

- **1. maila:** Ariketa fisikoa eta kirolak egitea natura-ingurunean, eta horiek egitean, ingurunea zaintzeko arauak eta segurtasun-arauak betetzea, orientazioko teknika oinarrizkoak lantzea eta logistika-baldintza oinarrizkoak zaintzea.


Natur jardueretako edukien inguruan curriculumeko bi hezkuntza etapen artean behatzen den desorekak, natur jardueren inguruan dagoen progresio falta azaleratzen du. Honen ondorioz, Lehen Hezkuntzan askotan natur jarduerak lantzen ez direnez, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzara iristean irakasleek lan bikoitza egin behar dute, oso oinarrizko ariketetatik hasiz, ikasleak pixkanaka natur inguruneetara ohitzeko. Honen adibide bezala, orientazio gaitasunak erabili ditzakegu (puntu kardinalak, mapen irakurketa, iparrorratzen erabilera..), izan ere, nire esperientzia pertsonala eredu bezala erabilia, DBH-ko 3. mailara iritsi arte, ez nuen behin ere mapa eta iparrorratz bat erabiltzen ikasi.

Natur jarduerak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako curriculumean, Lehen Hezkuntzako curriculumean baina nabarmenki gehiago aipatzearen zergatia ez dago argi. Pedagogia aldetik gutxienez, ez dago pisuzko justifikaziorik eta aurrerago azalduko den bezala, seguruenik gizarte bezala dugun beldurraren ondorioa da. Izan ere, natur jardueren izaera kontutan hartuta, adin desberdinetako ikasleen gaitasunetara orientaturiko jarduerak prestatu daitezke.

Hau ikusarazteko, Jovingot-ek (1995) ikerketa bat aurrera eraman zuen, non 5-6 urteko umeekin orientazio jarduera bat egin zuen, haiek zuten orientazio gaitasuna aztertzeko. Ikerketa honetan behatu zen adin horiekin oraindik ikasleek herriaren mapa bat interpretatzeko zailtasunak zituztela eta erreferentzia bisualak gehiago erabiltzen zituztela, mapa-eremuaren interakzioa baino. Hala ere, ikerketa honetan baieztatzen da ikasleek krokisak interpretatzeko duten gaitasuna oso adin gazteetatik landu daitekela. Beraz hezkuntza sisteman beharrezkoa izango litzateke Lehen Hezkuntzatik gaitasun hauek lantzen hastea, jarraian DBH-n mapa topografikoak lantzen ikasteko.

Azterketa honekin, gure hezkuntzan sisteman natur jarduerak duten lekua eta garrantzia behatu daiteke. Kasu honetan, Lehen Hezkuntzako graduiko ikaslea izanik, jarraian egingo den proposamen didaktikoa Lehen Hezkuntzako etapan kokatuta egongo da eta behatu den bezala, Lehen Hezkuntzan "Konpetentzia motorraren" edukien barnean natur jardueren inguruko aipamenak urriak dira.

Curriculumean leku gutxi izateak, aurrerago ikusiko ditugun beste eragozpen batzuekin batera, gaur egun ikastetxeetan natur jarduerak praktikan jartzea zailtzen du. Errealitate hau Lopez de Sosoaga-k (2017) egindako tesian argi eta garbi behatu daiteke. Tesi honetarako Euskal Herriko Gorputz Hezkuntzako irakasleek proposatutako egoera motorren barne logikaren (Parlebas, 1987) analisi bat egin zuen eta bertan behatu zuen ikasleek espazioa irakurri eta honekiko erabakiak hartzea bakarrik heziketa fisikoko saioen % 3.8-an ematen zela (2. irudian behatu daitekeen bezala).



2. Irudia. Espazioaren ziurgabetasuna Heziketa Fisikoko saioetan. (Lopez de Sosoaga, 2017-tik euskaratua)


Babes kontestu honetan ikasleek ez dituzte inguruetik jasotzen duten informazioaren araberako erabaki motorrak hartu behar eta espazioa ezaguna denez, haien akzio motorrak ez du ziurgabetasunaren araberako aldaketarik izango. Espazioaren benetako ezagutza hau eskolaren mugetatik kanpo bilatzera joan behar da: nagusiki naturan eta maila txikiago batean hiri eta herrietan. Horretarako ikasleak gimnasioaren pareta alde batera utzi behar ditu eta Platonen kobatik atera behar da (Lopez de Sosoaga, 2017).

Curriculumaren behaketa honekin argi ikusten da Heziberri 2020 Curriculum Dekretuak ez duela EAE-n natur jarduerak egiteko testuinguru egokiena ahalbidetzen. Baina curriculumaz gain, beste zenbait faktorek azkeneko urteetan natur jarduerak Gorputz Hezkuntzako eduki bezala lantzea oztopatu dute. Hurrengo atalean irakasle eta ikertzaile desberdinek identifikatu dituzten faktoreak aztertuko dira.

2.4 Natur jarduerak praktikan jartzeko zailtasunak

Natur jarduerak hezkuntza eremuan duten potentziala argi geratu da, baina egile desberdinek natur jarduerari ematen dieten garrantzia ez da euskal curriculumean islatuta ikusten, behatu ahal izan dugun bezala. Hau horrela izatearen atzean arrazoi desberdinak behatu daitezke, hezkuntza arloan ditugun mugak eta gure gizartean eratu den biofobia besteak beste.

Alde batetik, Peñarrubia et al.-ek (2016) zehazten duten bezala, zenbait faktorek praktika hauek hezkuntza mailan praktikan jartzea zailtzen dute. Faktore hauek hiru multzo nagusitan sailkatu daitezke, haien jatorriaren arabera: zentroarekin erlazionaturiko faktoreak, irakaslegoarekin erlazionaturiko faktoreak eta azkenik ikasleekin erlazionaturiko faktoreak.



3. Irudia. Heziketa Fisikoan natur jarduerak egitea mugatzen duten faktoreak. (Peñarrubia et al. 2016-tik euskaratua).

Zentroarekin erlazionaturiko faktoreetan, lau atal desberdin bereizi daitezke: instalakuntzak, baliabide materialak, baliabide ekonomikoak eta natur jarduerak praktikatzeko ordu kopurua.

Hasteko, instalakuntzei dagokienez, zentro bakoitzak oso errealitate desberdina bizi du. Zentro askok ez dituzte espazio naturalak gertu, ezta egokitutako espazioak ere (rokodromoak, bizikleta parke artifizialak...). Honek natur jarduera guztiak zentroari egokituta prestatu behar izatea eragiten du, hau egiten duten irakasle kopurua txikituz.

Baliabide material eta ekonomikoek zentro bakoitzak erabili eta egin ditzaken jardueretan zuzenean eragiten dute. Natur jarduera askotarako behar den materiala oso espezifikoak izaten da eta hau erosi edo alokatzeak kostu altuak izaten ditu ikastetxe batentzat. Aldi berean zentro bakoitzak duen aurrekontuak desplazamendu, monitore eta beste hainbat jardueretarako beharrezkoak diren elementuak ordaintzeko duen ahalmena mugatzen du.

Arlo honetan kontutan hartu behar dugun azkeneko elementua, zentro bakoitzak duen antolakuntza eta natur jarduerari (eta Heziketa Fisikoari) eskaintzen dieten ordu kopurua da. Izan ere, natur jarduerak egiteak natur eremuetara desplazatzea eragiten du eta honek denbora darama. Zentro askotan irakasgai bakoitzari zuzentzen zaion denbora oso zehaztuta dago eta hau natur jardueretara egindako irteerekin uztartzea oso zaila izaten da.

Irakasleekin erlazionaturiko faktoreetan, bi faktore desberdin zehaztu daitezke: alde batetik irakaslegoaren formakuntza espezifikoak eta bestetik natur jarduerak duten arrisku objektiboa.

Natur jarduerak gutxi praktikatzearen atzean dagoen arrazoi nagusietako bat, irakaslegoaren formakuntza espezifiko falta da (Funollet, 1989). Hasteko gradu askotan (Euskal Herriko Unibertsitatean adibidez) ez dira natur jarduerak ikasgai bezala lantzen, beraz formatzen dauden irakasleek ez dute honen inguruko informaziorik jasotzen eta ez dizkiete natur jardueren garrantzia eta hezkuntza potentziala baloratzeko erramintak ematen. Hala ere, egia da Espainia mailan dauden gradu batzuetan natur jardueren inguruko irakasgai bat dutela, baina funtsean orientazio eta mendi ibilaldiak bezalako jarduerak egiten dira bakarrik, beste motako jarduerak alde batera utziz. Hau kontutan hartuz, ezinbestekoa da etorkizuneko irakasleen formakuntza eta kontzientzia maila handitzea, hortik aurrera aipatutako beste faktore mugatzaileak landu ahal izateko.

Beste faktore nagusietako bat, natur jarduerak inplizitu duten arriskuak irakasleengan sortzen duen beldurra da. Istripuak izateko beldur hau ikasle eta gurasoengan zabaltzen da eta honen ondorioz orientazio eta mendi ibilaldiak egiten dira bakarrik, beste motako jarduera batzuk alde batera utziz.

Azkenik, ikasleekin erlazionatuta dauden faktoreak ditugu. Ikasleengan behatu daitekeen muga handiena, hauek duten esperientzia falta da. Ez daude naturan egotera eta natur jarduerak egitera ohituta, eta honen ondorioz jarduera hauetako asko benetako erronkak bihurtzen dira haientzat. Honi gehitu behar zaio gure ikasgeletan behar bereziak dituzten ume eta gazteak daudela eta haiek jarduera batzuk burutzeko zailtasunak izan ditzaketela.

Ildo honetatik, Parra-k (2008) beste zenbait faktore nabarmentzen ditu, berak "Es que" deitzen dituenak. Hitz hauekin egileak irakasleek normalean natur jarduera bat ez egiteko jartzen dituzten aitzakiei erreferentzia egiten dio ("es que... implica mucha responsabilidad (18. or)").

Parra-k (2008) "Es que" hauek bost multzo desberdinetan bereizten ditu: administrazioa, irakaslekoa, antolamendua, jardueren izaera eta azkenik hezkuntza kultura. Aipatutako faktore asko Peñarrubia et al.-ek (2016) aipatutakoarekin amankomunak dira, baina beste faktore garrantzitsu batzuk ere zehazten ditu. Hauen artean ikasle-irakasle arteko gehiegizko ratioa, irakasleen lan zamaren handitzea, errendimendu eta efizientziara bideraturiko kultura eta aldaketei dagoen beldurra nabarmenduko nituzke.

Guzti honekin erlazionatuta eta atal honen hasieran aipatu den bezala, gaur egun hezkuntza arloan natur jarduerak praktikan jartzea eragozten duen beste faktore nagusia, biofobia da, Louv-ek (2005) baieztatzen duen bezala. Hiri handietan jaiotako pertsonak eraikin handiz eta teknologiaz inguratuta jaio dira eta pertsona hauek erosoago sentitzen dira teknologiaz inguratuta, naturan baino, naturari beldurra diotelako. Honek gurasoen parteko gehiegizko babesa egotea eragiten du eta aldi berean guraso eta seme-alaben artean denbora gutxiago partekatzea. Joera honi kontrajarriz, Freire-k (2011) gure garuna gainontzeko pertsonekin eta naturarekin erlazionatzeko diseinatua dagoela babesten du.

Natur jarduerak gure gizartean bizi duten errealitatea eta Gorputz Hezkuntzako eduki bezala duten bigarren mailako papera aldatzeko asmoz, Espainia mailan "Red estatal de Educación Física en la Naturaleza" (REEFNAT) sortu zen, 2016. urtean. Sare honetan Espainia mailan dauden autonomia-erkidego desberdinetako eta irakaskuntza-etapa desberdinetako irakasle eta profesionalak parte hartzen dute eta erakunde honen helburua natur jarduerak hezkuntza sisteman duten garrantzia eta pisua handitzea da. Horretarako gaur egungo egoera aztertzen da, hezkuntzak arlo honetan dituen behar eta gabeziak detektatuz, eta hauei soluzio bat emateko proposamenak eginez, gure gizarteko ume eta gazte guztiek naturaz gozatzeko aukera izatea bilatzen dute (Baena, 2017).

Honetaz gain, sare honen bitartez mintegi eta kongresu desberdinak egiten dira, natur jardueren inguruko solasaldiak bultzatzeko, Espainia mailan dauden irakasle eta ikasle desberdinen artean. Nik pertsonalki 2021-ko martxoaren lehenengo astean egindako mintegi desberdinetan parte hartzeko aukera izan nuen, hezkuntzarekin erlazionatuta zeudenak. Bertan irakasle desberdinek erabili eta probatutako metodologiak partekatu zituzten eta azken urteetan praktikan jartzen ari diren joera berrien inguruan hitz egin zuten. Honen inguruko adibide bat, teknologia berriak eta natur jarduerak elkartzeko proposamen bat izan zen, non *Smartwatch*-ak erabiltzen ziren saioa ondoren ikasleek mapan haiek eginiko ibilbidea behatzeko.

2.5 Natur jarduerak Gorputz Hezkuntzan praktikan jartzeko ereduak: Norvegiako *friluftsliv*-a

Hezkuntza testuinguruan natur jarduerak aurrera eramateko arazo gehienak, gure kulturaren eta azkeneko urteetan zehar jasan dugun eboluzioan dute jatorria. Munduko beste kultura batzuetan (EEBB, Australia, Zeelanda Berria, Norvegia, Suedia, Kanada...) naturarekiko erlazio hau beste modu batean sentitu eta ulertzen dute, eta honek gaur egun herrialde hauetan *Outdoor learning*-ean edo "naturan ikastean" oinarrituta dauden hezkuntza ereduak bideragarriak izatea eragiten du (Sutherland eta Maureen, 2016).

Kasu honetan nik pertsonalki bizi izan dudana esperientzia Norvegiako *Outdoor learning* eta *friluftsliv*-a izan da. *Friluftsliv* kontzeptua Henrik Ibsen antzerkigileak erabili zuen lehenengo aldiz, poema batean zehazki, zeinetan

pertsonaia batek bere pentsamenduak argitzeko naturan atsedean hartu nahi zuen. Friluftsliv-aren esanahia hitzez hitz hartuta "aire librea bizi" izango zen, baina kontzeptu hau modu literal batean itzultzea ez da guztiz egokia, izan ere, kontzeptu hau Norvegiarren kulturaren eta historiaren parte da eta pertsona bakoitzarentzat esanahi desberdin bat dauka (Dahle, 2007). Hala ere, egile desberdin asko *friluftsliv*-a definitzen saiatu dira.

- "Nire ustez *friluftsliv*-ak naturan egon eta gozatzeari egiten dio erreferentzia, bakarrik edo jende gehiagorekin, inguruarekiko armonia eta plazerra sentituz" (Dahle, 2007).
- "*Friluftsliv* kontzeptuak gizakiaren eta naturaren arteko konexio eta harreman esanguratsu baten alde egiten du" (Gelter, 1999).

Beraz, pertsona batzuentzat haien seme-alabekin arrantza egitera edo fruituak jasotzera joatea *friluftsliv*-a izan daiteke eta beste batzuek aldiz, naturarekiko konexio hau sentitzeko egun ugarian zehar basoan galduta lo egin behar dute, muturreko esperientziak biziz. Hala ere, *friluftsliv*-a ulertzeko modu guzti hauek amankomunean gauza bat dute, natura.

Norvegiar kulturak *friluftsliv*-a arrazoi desberdinengatik egiten du: energiak kargatzeko, egunerokotasunaren estresetik aldentzeko, fisikoki hobeto egoteko, osasuna zaintzeko edo naturarekiko konexioa sentitzeko, besteak beste (Odden, 2008).

Bizitza eta natura ulertzeko modu honek norvegiarrek naturarekin kontaktuan dagoen hezkuntza baten alde egitea eragin zuen, eta hau dela eta gaur egun hezkuntza curriculumean *friluftsliv*-arekin loturiko gaitasun eta konpetentzia desberdinak aurkitu daitezke, jarraian dagoen taulan behatu daitezkeen bezala.

Kurtso	Adina	Arloak / eduki multzoak		
1-4	6-10	Jarduera fisikoa ingurune desberdinetan		
5-7	11-13	Kirol jarduerak	Friluftsliv (Bizitza aire librean)	
8-10	14-16	Kirol jarduerak	Friluftsliv	Jarduera fisikoa eta bizitza estiloa

Utdanningsdirektoratet. (2015). Curriculum for Physical Education.

Norvegiarren curriculumean behatu daitekeen bezala etapa guztietan natur jardueri garrantzia handia ematen diete. Lehenengo lau urteetan (6-10 urteetan) eduki multzo bakar bat dago, nahiko orokorra dena eta izenak esaten duen bezala ingurune eta egoera desberdinetan moldatzen ikastean zentratzen dena.

Ondorengo etapetan, konkrezio maila handitzen da eta eduki multzo desberdinetan banatzen dute ikasgaia: kirol jarduerak, *friluftsliv*-a eta jarduera fisikoa eta bizitza estiloa. *Friluftsliv* eduki multzoan, natur jarduera eta natura ulertu eta errespetatzearen inguruko konpetentziak lantzen dira.

Alde kurrikularretik beraz behatu daiteke Gorputz Heziketako edukien erdia edo herena (etaparen arabera) natur jardueri eskaintzen zaiela eta honi esker natur jarduerak babes kurrikular sendoa dutela Norvegian. Hau kontutan hartuta, herrialde honetan irakasleek natur jardueretako ezagutzak izatea ezinbestekoa da. Honetarako, unibertsitateko formakuntzaz gain (non natur jardueren irakasgaia oinarrizkoa den) unibertsitate eta elkarte ugari ikastaro desberdinak eskaintzen dituzte.

Guzti honek domino efektu bat sortzen du: babes kurrikularra izateak, irakasleak honetarako prestatzea eragiten du, honek aldi berean ikastetxeak prestatuta egotera eramaten ditu eta jarduera mota hauentzat baliabide material eta ekonomiko gehiago eskaintzea eragiten du. Guzti honen emaitza, natur jardueretan oinarrituta dagoen Heziketa Fisiko eredu sendo bat da.

Izan ere, gaur egun norvegiarrek duten hezkuntza eredu munduan dagoen eredu arrakastatsuenetariko bat bezala kontsideratuta dago. Hezkuntza honen oinarria berdintasuna eta ikasle bakoitzari egokitutako hezkuntza bat da, genero, arraza, erlijio edo behar bereziak kontutan hartu gabe. Gainera, eredu honen barruan, irakasle eta ikasle desberdinek Heziketa Fisikoa irakasgai garrantzitsu eta erabilgarrieneraiko bat bezala kontsideratzen dute (Moser et al., 2005).

Norvegiar hezkuntza gure herrialdean dugun hezkuntza sistemarekin alderatuz, desberdintasunak nabariak dira. Heziketa Fisikoaren arloan adibidez (bi curriculumak alderatuz) herrialde bakoitzean dauden lehentasun

eta helburuen arteko desberdintasunak argi ikusten dira eta honi esker eredu bakoitzaren indargune eta ahulguneak aztertzeke aukera daukagu.

Natur jardueren kasuan bi curriculumen azterketak begi bistan uzten du Norvegiarren ereduak garrantzia eta pisu handiagoa ematen diela natur jarduerari, Heziberri 2020 Curriculum Dekretuarekin alderatuz. Honek ez du esan nahi eredu bat bestea baino hobetagoa edo okerragoa denik, bakoitzak bere indarguneak dituelako, baina kasu honetan gure curriculumaren ahulgunea diren natur jarduerak beste herrialde batean nola lantzen diren behatu dezakegu, beste eredu hauetatik ideiak hartzeko.

Izan ere, natur jardueren garrantzia gure gizarte eta curriculumean islatzeko bidea ez da norvegiarren ereduak kopiazea izan behar, haiek kultura eta lan egiteko modu jakin bat dutelako. Honen ordez, beste herrialdeek natur jarduerak gehiago bultzatzea ahalbidetzen dieten faktoreak aztertu behar ditugu (curriculumeko garrantzia, irakasleen prestakuntza maila, familien jarrera...) eta ahal den heinean gure kultura eta ikastetxeetara moldatzea lortu behar dugu.

2.6 Oinarri teorikoaren ondorioak

Teoriaren azterketa honi esker naturak eta natur jarduerak gure gizartean duten lekua hobeto ulertzeko aukera daukagu eta analisi honetatik abiatuz, hobekuntza proposamen desberdinak egin daitezke. Kasu honetan, Lehen Hezkuntzako graduko ikaslea izanik, aldaketa hau hezkuntzatik abiatuta egin daitekeela pentsatzen dut, naturak ikasleengan dituen onura guztiengatik.

Atal honetan zehar behatu den bezala gaur egun gure herrialdean dugun pentsamolde eta hezkuntza sistemarekin, Gorputz Hezkuntzan natur jarduerak aurrera eramateko traba eta muga desberdinak aurkitzen ditugu. Honi soluzio bat emateko, beste herrialde batzuek duten hezkuntza sistemaren ezaugarriak behatu ditzakegu eta gure herrialdera modu egoki batean aplikatzen saiatu.

Honen eredu bat sortzeko asmoz jarraian proposamen didaktiko bat garatuko da, Gasteizko Errekabarri ikastetxerako prestatua. Proposamen honen helburu nagusia, Gorputz Hezkuntzaren bidez ikasleak naturara hurbiltzeko aukera eskaintzea da, testuinguru zehatz baterako aplikagarria izanez

3. Proposamen didaktikoa

3.1 Sarrera

Marko teorikoan aztertu den bezala, gaur egun gure gizartearen eta naturaren arteko deskonexioa begi-bistakoa da eta honi konponbidea emateko dugun tresna indartsuenetako bat hezkuntza erabiltzea da, ikasleei aintzinetik dugun naturarekiko erlazio honen garrantzia ikusarazteko. Baina behatu den bezala, gaur egun dugun hezkuntza sistemak ez du balio eta konpetentzia hauek garatzeko kontestu egoki bat ahalbidetzen eta irakasleek hainbat traba aurkitzen dituzte natur jarduerak praktikan jartzeko unean.

Guzti hau kontutan hartuz eta aipatutako traba hauei erantzun bat emateko asmoz, jarraian proposamen didaktiko baten aurkezpena egingo da. Diseinu didaktiko honen helburu nagusia testuinguru zehatz batean natur jarduerak lantzeko proposamen bat egitea da, zentroaren muga eta aukeretatik abiatuz eta gaur egun dugun marko kurrikularrean oinarrituz.

Proposamen didaktiko hau diseinatzeko testuinguru bezala Gasteizko Errekabarri ikastetxea erabiltzea erabaki dut. Izan ere, pasa den urtean bertan lan egin eta aurten bertan praktikak burutu izanari esker, ikastetxearen antolamendu eta metodologia hurbiletik ezagutzen ditut eta kontestu hau natur jardueretan oinarritutako proposamen bat diseinatzeko aproposa iruditu zait.

Pertsonalki proposamen honen bitartez, ikastetxe honetan guztiz aplikagarria den eredu bat eratzeko helburua dut, aurten edo etorkizun batean edozein irakaslek praktikan jarri ahal izateko. Honetarako kokapena eta metodologia bezalako ezaugarriak aztertu eta kontutan hartzea ezinbestekoa da, proposamena ahalik eta egoera erreal baterako prestatzeko.

3.2 Ikastetxearen testuingurua eta ezaugarriak

Errekabarri ikastetxea Gasteizko Salburua auzoan kokatuta dagoen ikastetxe publiko bat da. Auzo honek azken urteetan biztanle hazkuntza nabarmena jaso du (batez ere hiriaren kanpoaldean kokatuta egoteak ematen dion hazkunde ahalmenagatik) eta ume kopuru hazkuntza honi erantzun bat emateko Errekabarri ikastetxea sortu zen, 2014. urtean.

Ikastetxea nahiko berria izateak, bere sorkuntzatik metodologia eta hezkuntza tradizionaletik aldentzen den izaera bat hartzea ahalbidetu dio. Honen eredu, Errekabarri ikastetxean erabiltzen duten Proiektuen Bidezko Metodologia (PBM) dugu, aurrerago sakonago azalduko dena.

Metodologia hau erabiltzeak, ikastetxearen antolamendua guztiz baldintzatzen du, proiektuak erosotasunez aurrera eramanez ahal izateko. Honetarako, ikasleen ordutegia modu alternatibo batean antolatuta dago: alde batetik ikasleak eta tutorea elkarrekin dauden orduak zehazten dira eta bestetik espezialitate orduak (Ingelesa, Musika eta Gorputz Hezkuntza). Honi esker tutoreak beste ikasgai guztiak lantzeko (Matematika, Euskara...) askatasun osoa dauka eta konpetentziak modu interdiziplinar batean lantzea errazten da.

Errekabarri ikastetxean Gorputz Hezkuntza nola lantzen den behatuz, beste ikasgaiekiko desberdintasun nabariak antzematen dira. Ikasgai honetan ez dute PBM erabiltzen eta orokorrean ez dute beste ikasgaiekiko loturarik egiten (inter-diziplinaritatea murriztuz). Honen ordez lehenengo zikloan batez ere txoko dinamikak erabiltzen dituzte eta bigarren zikloan aldiz eduki desberdinak lantzeko unitate didaktikoak erabiltzen dituzte. Naiz eta metodologia honek tradizionalagoa dirudien, hau aurrera eramateko orduan gaitasun motor desberdinak lantzen diren joko-jolas eta kirolak erabiltzen dituzte, ikasleen garapen integral bat lortzeko asmoz.

3.2.1 Proiektuen Bidezko Metodologia

Proiektuen Bidezko Metodologia umeen interesetan oinarritzen den metodologia bat da, zeinek haien aurre jakintza eta interes pertsonalak kontutan hartzen dituen eta hauetatik abiatuz, umea proiektu baten produkziara eramaten duen (Alós eta Masferrer, 2014).

Metodologia honek orain arte erabili izan den hezkuntza-metodoa (tradizionala) alde batera uzten du eta umei gizartean dauden egoera desberdinei aurre egiten lagunduko dien metodologia berri baten alde egiten du, gizartearen erronka eta beharrei erantzun bat emateko (Hernández eta Ventura, 2010). Metodologia honen barnean, aldaera desberdinak erabili daitezke eta proposamen honetarako, zehazki, arazo-egoerak erabiliko dira. Arazo-egoera horietan, ikasleak egoera konplexuen eta esanguratsuen

aurrean jarri behar dira, erronka kognitiboa bultzatuz egoera horiek konpon ditzaten (Karlin eta Vianni, 2001).

Hala ere, proiektu hauen helburua ez da soilik arazo bat ebaztea edo azken produktu bat lortzea, baizik eta prozesuan zehar gertatzen dena. Horregatik normalen PBM erabiltzen den kasuetan etengabeko ebaluazioa erabiltzen da, autoebaluazio, koebaluazio eta irakaslearen ebaluazioaren bitartez. Honi esker, ikasleak prozesuaren parte sentituko dira eta bereganatutako eduki eta gaitasunak lortzeko jarraitu duten bidearen kontzientzia izango dute.


Metodologia hau erabiltzeak, irakasleen eta zuzendaritzaren jarrera berritzailearekin batera, Errekabarri ikastetxea hezkuntza ideia berriak aplikatzeko testuinguru paregabea bilakatzen dute.

3.2.2 Testuinguruaren abantailak eta mugak

Behatu daitekeen bezala Errekabarri ikastetxeak izaera eta ezaugarri definitu batzuk ditu eta ikastetxe honetarako natur jardueretan oinarritzen den Gorputz Hezkuntzako proposamen bat prestatzerako orduan, faktore hauek kontutan hartu behar dira. Ikastetxeak dituen ezaugarri desberdinak aztertzeari esker, proposamenaren bideragarritasuna mehatxatu dezaketen faktoreak identifikatu ahaliko ditugu, hauei konponbide bat emateko eta aldi berean ikastetxearen indarguneak ahalik eta gehien aprobetxatzeko.

Errekabarri ikastetxeak natur jarduerak aurrera eramateko dituen indargune posibleak aztertzeko, ikastetxeak dituen ezaugarri desberdinei erreparatu behar diegu eta natur jarduerekin izan dezaketen lotura posiblea kontutan hartu. Analisi hau egin ondoren, orokorrean hiru indargune nagusi behatu daitezke: kokapen geografikoak eskaintzen dituen erraztasunak natur inguruneetara mugitzeko, ikastetxeak duen izaera berritzailea eta ikastetxean erabiltzen den PBM.

Kokapen geografikoari dagokionez, 4. irudian behatu daitekeen bezala, Errekabarri ikastetxea Gasteizen ekialdean dago, erdigunetik aldentuta. Honi esker ikastetxearen ingurune hurbiletik desplazatzea asko errazten da, kaleak zabalagoak direlako eta kotxe gutxiago daudelako. Aldi berean ingurune naturaletara azkarrago heltzeko aukera ematen digu (Salburuako hezegune edo Olarizuko parkera adibidez).



4. Irudia. Ikastetxearen kokapena eta gertuko ingurune naturalak.

Beste indargune bat, ikastetxearen izaera da. Aipatu den bezala, ikastetxe honetan hezkuntzaren nahiko ikuspegi berritzailea daukate eta zentzu honetan ez dira metodologia berriak aplikatzeko beldur. Honi esker, Errekabarri ikastetxea natur jarduerak Gorputz Hezkuntzako edukietan sartzeko testuinguru egokia da.

Azkeneko indargune bezala, PBM-k natur jardueretan duen aplikazio potentziala daukagu. Izan ere, natur jarduerak izatez badute abentura kutsu bat, arazo-egoeren bitartez bultzatu daitekeena. Honi esker, ikastetxeko beste irakasgaietan jarraitzen duten metodologia, Gorputz Hezkuntzan aplikatzeko aukera izango genuke.

Aipatutako ezaugarri hauek Errekabarri natur jarduerak aurrera eramateko ikastetxe apropos bat bezala planteatzen dute, baina aldi berean beste faktore batzuek natur jarduera hauek mugatu ditzakete, hala nola: curriculumaren babesa, baliabide ekonomikoak eta arrisku objektibo zein subjektiboa.

Oinarri teorikoaren atalean azaldu den bezala, gaur egun indarrean dagoen curriculumak ez die natur jarduerari babes gehiegirik ematen. Honek orokorrean irakasleak jarduera hauek lantzerako "behartuta" ez egotea eragiten du. Baina aztertu den bezala, kompetentzia motorraren 5. eduki multzoan (Kultura motorra: aisia eta denbora librerako hezkuntza) honakoa aipatzen da:

“Ariketa fisikoa eta kirolak egitea natura-ingurunean, ingurumen-inpaktu arina eginez eta ingurumena zaintzen lagunduz”. Eduki multzo honek, gure proposamena aurrera eramateko babes kurrikularra eskaintzen du.

Ikastetxean aurkitzen den bigarren muga nagusia, baliabide ekonomikoak dira. Alde batetik, ikastetxe publikoa izanik, aurrekontua nahiko mugatua da eta zaila da gurasoen aldetik mota honetako jardueretarako dirua jasotzea. Beste alde batetik, kontutan hartu behar da ikastetxea oso berria dela eta beraz oinarritzekoak diren beste material batzuk lehentasuna daukatela (ordenagailuak, gurpildun mahaiak...). Honi konponbidea emateko modua, materialik behar ez den (edo material gutxi behar den) jarduerak egitea da.

Natur jardueren praktika mugatzen duen faktoreetako bat, oinarri teorikoan aipatu den bezala, ikasleek eta irakasleek duten arrisku pertzepzioa da, bai objektiboa eta bai subjektiboa. Gure herrialdean, orokorrean, irakasle zein ikasleak ez daude natur inguruneetan jarduerak egitera ohituta. Muga hau apurtzeko modua, modu progresibo batean ikastetxetik natur inguruneetarako trantsizioa egitea da, ondo parke edo ingurune erdi-naturaletatik hasita, ingurune guztiz naturaletan bukatzeraino.

Nire proposamena diseinatzerako orduan, indargune eta muga hauek kontutan hartzea ezinbestekoa da, aukeratutako testuinguruari modu errealenean egokitzeko eta etorkizun batean benetan aplikagarria izateko.

3.3 Gorputz Hezkuntza eta natura lotzen dituen proposamen didaktikoa

Gradu Amaierako Lan honetarako prestatutako proposamen didaktikoak “**Ama Lurraren bila**” izena du eta metodologia atalean azaldu dudana bezala arazo-egoera batean oinarrituta egongo da.

Proiektua I-a Eranskinetako gutuna jasotzearekin hasiko da. Gutun hau Mari izaki mitologikoak idatzia da eta gutun honen arabera Ama Lurra ez dio ikasleek Santa Agueda egunean egindako kantuari erantzun (ikasleek Oles, Oles abestia kantatu zuten, natura esnatzearen ingurukoa dena). Arduratuta, leku desberdinetan bilatzen saiatu da, baina ez du inondik aurkitzen. Honek, ikasleei hurrengo arazo-egoera planteatuko die: Ama Lurra bilatu behar dugu guztion artean.

Honetarako ikasleek pista desberdinak jarraitu, eskolatik atera eta ingurune erdi-naturaletan orientatzen ikasi beharko dute. Orientazio gaitasun hauek lantzeko lau saio erabiliko dira, belardi eta parke desberdinetan. Saio hauetan ikasleek iparrorratza nola erabili, mapak nola interpretatu eta naturan distantziak neurtzen ikasiko dute, beste eduki batzuen artean.

Behin ikasleek ezagutzak hauek barneratu dituztenean, Salburuako hezegunean zehar ibilaldi bat egingo da, mapa bat jarraituz. Salburuako parkera eramaten gaituen pistak esaten du, bertan Ama Lurra ezagutzen duten izaki mitologiko desberdinak aurkitu ahalko ditugula eta beharbada hauek Ama Lurrari buruzko informazio gehiago emango digutela. Ibilaldi honetako maparen puntu desberdinetan izaki hauen marrazkiak egongo dira eta puntu bakoitzean irakasleak izaki mitologiko bakoitzaren karta aterako du.

Karta hauen helburua ikasleei euskal mitologiako izaki desberdinen inguruko informazioa ematea da eta hau egiteko karta bakoitzak izaki bakoitzaren marrazkia eta oinarritzko informazioa izango ditu inprimatuta. Honetaz gain, hurrengo saioetako jarduerak bultzatzeko, karta bakoitzean joko edo jolas bat egongo da idatzita eta ikasleek izaki mitologikoen inguruan gehiago jakin nahi badute, joko-jolas hauetara jolastu beharko dute.

Jarduera hauek egiteko hurrengo 3 saioetan Olarizuko parkera joango gara, bizikletaz, bertan joko-jolas guztiak probatzeko. Joko-jolas guzti hauek euskal joko-jolas tradizionaletan oinarrituta daude, baina proposamen honen gaia jarraituz haietako bakoitza izaki mitologiko bati lotuta egongo da. Guzti honen helburua gure kultura motorreko edukiak lantzea izango da, kontestu egoki batekin. Proposamenarekin amaitzeko landutako arlo guztien inguruko hausnarketa bat egingo dugu, zortzi saioetan zehar egindako jarduerak naturarekin duten erlazioa aztertzeko eta naturak gure bizitzan izan beharko lukeen paperaren inguruan hausnartzeko.

Behatu daitekeen bezala, proposamenaren hasieratik ikasketa prozesua esanguratsua izateari garrantzia handia ematen zaio eta honetarako erabiltzen den estrategietako bat, kontestu zehatz bat ematea da, kasu honetan euskal mitologia. Honen zergatia ikastetxearen izaera eta lan egiteko moduan dago, izan ere, Errekabarri ikastetxean ezinbestekoa da egingo diren proiektu eta jarduera guztiek testuinguru bat izatea, ikasleen motibazioa handitzeko eta

aldi berean arazo-egoera errealagoa bilakatzeko, ikasketa prozesu esanguratsu bat bultzatuz.

Hau nire proposamenean inplementatzerako orduan, arazo-egoera sortzeko ikasleek zerbait bilatu beharra izatea erabaki nuen. Zer bilatu behar zuten pentsatzerako orduan, objektu bat galdu izan izatea sinpleegia iruditu zitzaidan eta Ama Lurra galdu izan izatea erabaki nuen. Izan ere Ama Lurra pertsona, jainko edo ideia bat bezala kontsideratu daiteke eta kontzeptu hauekin jokatzek, Gradu Amaierako Lan honetako edukiak lantzeko primerako kontestua eskaintzen zidan: Ama Lurra ez aurkitzearen eta gure gizarteak naturarekiko duen deskonexioaren arteko erlazioa egitea.

Oinarri honetatik abiatuz, gai honetan gehiago sakonduz gure kulturako izaki mitologiko guztiek naturarekiko erlazio zuzena dutela behatu nuen, proposamenarekin lotura eginez. Gainera, euskal mitologia gizarte matriarkal batean oinarrituta dago eta hau lantzea gaur egun biziz dugun gizarte patriarkaleko ereduaren kontra joateko baliagarria da, berdintasunaren inguruko mezu bat transmitituz. Arrazoi guzti hauek kontutan hartuz, euskal mitologia natur jarduerak lantzeko kontestu erabilgarria iruditu zitzaidan eta proposamen honetarako testuinguru bezala erabiltzea erabaki nuen.

3.4 Lotura kurrikularra

Proposamen didaktiko hau diseinatzeko momentuan oinarri bezala EAE-n indarrean dagoen curriculuma erabili dut, Heziberri 2020 Curriculum Dekretua bereziki. Dokumentu honek EAE-ko ikastetxe desberdinetan aurrera eramaten diren ikaskuntza-irakaskuntza prozesuak erregulatzen ditu, lortu beharreko gutxieneko kompetentziak zehaztuz. Ikaskuntza proposamen hauen bitartez arlo bakoitzean (arloan pertsonal, sozial zein akademikoan) ikasleek ahalik eta kompetentzia gehien garatzea bilatzen da. Azkenik, Heziberri 2020 Curriculum Dekretuak irakaskuntza tradizionala alde batera uztea bilatzen du eta gure gizartera hobeto egokitzen diren metodologia berritzaile eta aktiboak bultzatzea du helburu.

Beraz EAE-n indarrean dagoen legedia jarraitzeko, proposamen didaktiko hau diseinatzeko erabili diren helburu, eduki, kompetentzia eta lorpen-adierazleak Heziberri 2020 Curriculum Dekretutik hartu dira eta jarraian esku-hartze osoan

zehar lantzen diren helburu, eduki, konpetentzia eta lorpen adierazleak xehetasunez azalduko dira.

3.4.1 Curriculumeko gaitasunekiko lotura

Proposamen honen babes kurrikularraren oinarri bezala Heziberri 2020 dokumentutik zuzenean zeharkako konpetentzia bat eta konpetentzia espezifikoa bat aukeratu dira, bereziki landuko diren osagaiak zehaztuz.

Zeharkako konpetentziak

Diseinatutako proposamenean nagusiki lantzen den zeharkako konpetentzia **“Ekimenerako eta espiritu ekintzailerako konpetentzia”** da. Konpetentzia honen funtsa, ikasleek ekimenez jardutea eta prozesu ekintzailea ausart eta eraginkor kudeatzea da, honi esker egoera eta testuinguru pertsonal, sozial, akademiko eta lanekoetan ideiak ekintza bihur daitezten.

Zeharkako konpetentzia honek hiru osagai desberdin ditu eta proposamen honetan batez ere hurrengoak landuko dira:

- 2. osagaia: Planifikatutako ekintzak gauzatzea eta, beharrezkoa baldin bada, haiek doitzea.

Konpetentzia espezifikoak

Diziplina bakoitzeko konpetentzietan dagokionez, proposamen honetan bereziki lantzen dena **“Konpetentzia motorra”** da. Heziberri 2020 dekretuan horrela dago definitua: “Autonomiaz, izaera kritikoz, sormenez eta adierazkortasunez lantzea norberaren, gainerako pertsonen eta ingurune fisiko eta kulturalaren jardun-eremu motorreko egoerak, eta jokabide motorra lantzen laguntzen duten jakintzak, prozedurak eta jarrerak barneratzea, jarduera fisikoa eta kirola egiteko ohiturak hartu eta, bizimodu osasungarri batean oinarrituta, ongizate osoa lortzen laguntzeko”.

Konpetentzia honek bere barnean 4 osagai desberdin ditu eta proposamen didaktiko honetan bereziki hurrengo biak landuko dira:

- 1. osagaia: Jokabide motor autonomorako gaitasun eta trebetasun fisikoak lantzea, eta horretarako, ohikotasunez egitea, banaka nahiz

taldean, jarduera fisikoak, ludikoak eta kirolak, ongizate pertsonala eta soziala bermatzeko.

- 2. osagaia: Jokabide motorra erabiltzea norberaren kultur-nortasuna sendotzeko eta herriaren balioak indartzeko.

3.4.2 Curriculumeko eduki multzoekiko lotura

Proposamen honetan landuko diren edukiak aurretik aipatutako konpetentziak kontuan hartuz hautatu dira eta hauek ere Heziberri 2020 Curriculum Dekretuan zehaztuta daude. Edukien aldetik orokorrean “**Konpetentzia Motorreko**” edukiak landuko dira, bai eduki komunak eta bai konpetentzia honekiko espezifikoak diren edukiak ere.

- 1. Multzoa. **Eduki komunak:**
 - Egindako plangintza betetzea eta, beharrezkoa bada, hura doitzea.
- 5. Multzoa. **Kultura motorra: aisia eta denbora librerako hezkuntza:**
 - Euskal Herriko eta beste kultura batzuetako herri-izaerako kirol, dantza eta jolas tradizionalak egitea eta ikertzea.
 - Ariketa fisikoa eta kirolak egitea natura-ingurunean, ingurumen-inpaktu arina eginez eta ingurumena zaintzen lagunduz.
- Euskal curriculumaren berariazko edukiak. **Kultura motorra: aisia eta denbora librerako hezkuntza**
 - Berezko euskal joko eta jolasak
 - Lanbide batean sorleku duten euskal jolas-joko arautuak

3.5 Gaitasunak eta ikaskuntza emaitzak

Heziberri 2020 Curriculum Dekretutik ateratako konpetentzia eta eduki desberdinetatik abiatuz, atal honetan konkrezio maila igoko da eta proposamen honen bitartez bereziki lantzen diren gaitasun eta ikaskuntza emaitzak zehaztuko dira, Heziberri 2020-ko ebaluazio-irizpide desberdinetan oinarrituz. Informazio hau beheko taulan jasota dago eta hurrengo atalean garatuko den proposamen didaktikoan zehar saio bakoitzean gaitasun eta ikaskuntza emaitza hauei erreferentzia egingo zaie

Gaitasunak eta ikaskuntza emaitzak

Gaitasunak	Ebaluazio-irizpideak (HEZIBERRI 2020)	Ikaskuntza emaitzak
Natur ingurune ziurgabe batean mapa/plano eta iparrorraz baten laguntzaz zehaztutako ibilbideak jarraitzea, ziurgabetasun-inguruneetan segurtasunez orientatzen ikasteko.	1. Ezezagunak eta zalantzarriak diren ingurune askotarikoetan egokitzea, lekualdatzeak eta jauziak.	<p>-Mapa/plano eta iparrorraz bat erabiliz, ingurune natural batean orientatzeko gai da.</p> <p>-Proposatutako jardueren helburua kontutan hartuz, hauek modu egoki batean gauzatzeko gai da.</p> <p>-Ingurunearen aldakortasuna kontutan hartuz desplazatzen da.</p>
Euskal kulturako jokojolasen arau eta oinarrizko balioak ezagutzea, gure kultura motorraren ondarea ezagutzeko.	6. Norberaren ahalegina eta taldearekin ezartzen diren harremanak identifikatzea jolasen eta kirol-jardueren oinarrizko balio diren aldetik, eta haiekin bat jotzea.	<p>-Euskal kulturako jokojolas tradizionalak ezagutzen ditu.</p> <p>-Lankidetzaren garrantzia ulertzen du, helburu amankomun bat lortzeko elkarrekin lan eginez.</p>

3.6 Ebaluazio metodologia eta tresnak

Proposamen didaktiko honek, eduki eta konpetentzia jakin batzuk lantzea du helburu eta proposamenak ikasleengan izan duen eragina behatzeko, ezinbestekoa da ebaluazio prozesu bat aurrera eramatea. Atal honetan, ikasleek bereganatutako gaitasunak ebaluatzeko erabiliko diren metodologia eta tresna desberdinak azalduko dira.

Hasteko zehaztu beharra dago, proposamen didaktiko honetan ebaluazio metodologia tradizionala alde batera utziko dela, eta ikastetxearen izaera jarraituz, etengabeko ebaluaketa sistema bat erabiliko dela. Etengabeko ebaluaketa honen barnean irakaslea ez da ebaluatzaile bakarra izango, baizik eta jarraian ikusiko dugun bezala, ikasleek haien burua eta haien kideak ebaluatuko dituzte, autoebaluazio eta koebaluazio fitxaren bitartez. Gainera, ebaluazio prozesu hau formatiboa bilakatzeko, ebaluazioa proposamenaren puntu desberdinetan egingo da.

Ebaluazio formatiboa etengabeko ebaluazioan oinarritzen den ebaluazio metodologia bat da, baina ebaluazio sistema honen ezaugarri nagusia, ikasleei bere beharrak eta indarguneak identifikatzea ahalbidetzen diela da, honen arabera hurrengo saioetan haien ahulguneetan zentratzeko aukera emanez (Hortigüela-Alcalá, 2020). Ebaluazio sistema hau proposamen honetan autoebaluazio eta koebaluazioaren bidez aurrera eramango da.

Autoebaluazioa ikasleek modu autonomo batean haien burua ebaluatzen ikasteko erabiltzen da eta kasu honetan ikasleek proposamenaren hasieran eta 5. saioan beteko duten "Autoebaluazio fitxa" (II-a Eranskina) baten bidez egingo da. Honi esker ikasleek haien ezagutza eta gaitasunak hobeto ezagutzen ikasiko dute eta aldi berean irakasleari informazio baliagarria emango diote, ikasleek hasieran dituzten aurre jakintzak behatzeko eta amaieran lortu dituzten gaitasunekin alderatzeko.

Koebaluazioa bi autoebaluazio hauen erdian aurrera eramango da, "Koebaluazio fitxaren" (II-b Eranskina) bitartez. Koebaluazioa ikasle batek beste bat ebaluatzen duenean ematen da eta kasu honetan ebaluazio formatiboa aurrera eramateko erabiliko dugu. Honetarako, 3. saioaren amaieran ikasleek haien bikotea ebaluatuko dute eta bertan ikasleak hobetu

behar dituen gaitasunak zehaztuko dituzte, hurrengo saioetan gaitasun hauetan enfasi gehiago jartzeko.

Irakasleak eginiko ebaluazioari dagokionez, behaketan oinarritzen den ebaluazio bat erabiliko da eta behaketa hau modu batean kuantifikatu ahal izateko "Ebaluazio-irizpideen fitxa" (II-d Eranskina) erabiliko da. Ebaluazio irizpide hauek ikaskuntza emaitzetan oinarrituta daude eta fitxa horretan irakasleak ikasleek irizpide hauek lortu dituzten edo ez adierazi beharko du.

Azkenik, euskal kultura, izaki mitologiko eta euskal joko-jolas tradizionalen inguruko edukiak barneratu dituzten behatzeko, azkeneko saioan 15 galderako Kahoot bat proposatuko diegu. Kahoot honetan, izaki mitologikoen inguruko informazioa eta joko-jolas desberdinen arau eta ezaugarrien inguruko galderak egingo ditugu.


3.7 Proposamen didaktikoaren garapena: Ama lurraren bila


Proposamen didaktiko hau Errekabarri ikastetxeko 4. mailan aplikatzeko diseinatua dago eta ikastetxe honetako testuinguru espezifikoaren kontutuan hartuz diseinatu da. Hala ere, proposamen honen oinarria mantenduz eta aldaketa batzuk eginez, beste kontestu askotarako ere aplikagarria izan daiteke.




Proposamen hau aurrera eramateko 8 saio behar dira, orokorrean ordu eta erdi iraungo dutenak. Klaseek ordu eta erdi irautea lortzeko, Gorputz Hezkuntzarako duten orduaz gain, irakasgai honen ondoren duten jolas-orduaren ordu erdia erabiliko da, toki desberdinetara joateko denbora izateko. Honi esker, saioko edukiak lantzeko ordu bete izango dugu, eta ordu erdi eskolatik natur inguruneetara desplazatzeko, ikasleek atsedean aktibo bat eginez.


Ikasturteko denboralizazioari dagokionez, gomendagarria da proposamen hau ikas kurtsoaren amaierako hilabetearen egitea. Izan ere, kontutuan hartu behar da natur jarduerak egiterako unean eguraldia garrantzitsua dela, beraz, maiatz-ekain bitartean aurrera eramaten bada, eguraldi hobez gozatzeko aukera izango dute ikasleek, jardueren praktika erraztuz.


Jarraian proposamen didaktikoaren saioz-saioko azalpena garatuko da, saio bakoitzak dituen helburu eta edukiak zehaztuz eta saio bakoitzean aurrera eramango diren jardueren sakoneko azalpena eginez.


1. Saioa. Ama Lurra galdu da, nola bilatu dezakegu?			
Helburuak	<ul style="list-style-type: none"> -Puntu kardinalak erabili eta kokatzen jakitea -Iparrorratza nola erabiltzen den ikastea -Euskal kulturako izaki mitologikoak zer diren ezagutzea 		
Edukiak	<ul style="list-style-type: none"> - Iparrorratzaren erabilera - Euskal mitologia - Puntu kardinalak - Adimen espaziala 		
Agertokia	Ikasleekin gimnasioan bilduko gara eta I-a Eranskina irakurriko dugu. Honekin ikasleei arazo-egoera planteatuko zaie eta proiektuari hasiera emango diogu.		
Jarduerak		Iraupena: 60 min	
1. Jarduera	Proiektuaren azalpena	Denbora	15 min
<p>Ikasle guztiak elkartuta daudenean, Mariren gutuna irakurriko dugu (I-a Eranskina) zeinek Ama Lurra mendebaldeko parkean bilatzea proposatzen digun. Hurrengo galderak erabiliz, proiektuari sarrera emango diogu:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Zein da Mari? zein da Ama Lurra? zer dira izaki mitologikoak? <p>Izaki mitologikoen inguruko informazioa irakasleak emango du, zer diren eta nondik datozen azalduz. Behin izaki mitologikoak zer diren argituta, orientazioaren inguruko kontzeptuak lantzeari ekingo diogu, hurrengo galdera erabiliz:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Zer da mendebaldea? badakizue non dagoen? 			

<p>Jarraitu baina lehen ikasleei "Autoebaluazio fitxa" (II-a Eranskina) emango diegu, gaiaren inguruan dituzten aurre-ezagutzak jakiteko.</p> <p>Hau bukatu ostean, irakasleak orientazioaren inguruko azalpen bat egingo du: funtzioa, historian zehar egon diren metodo desberdinak (izarrak, zuhaitzetako goroldioa, zuhaitzen enborren orientazioa, puntu kardinalak...) eta gaur egun erabiltzen ditugun orientazio tresnen inguruan (GPSak, iparrorratzak...). Jarduera hau ikasle eta irakaslearen arteko galdera-erantzunen bitartez dinamizatuko da.</p>		<div style="border: 1px solid black; padding: 5px;"> <p>Izena: _____ Data: _____</p> <p>1- Puntu kardinalak ezagutzen ditut:</p> <p style="text-align: center;">BAI GUTXI GORA BEHERA EZ</p> <p>2- Iparrorratz bat zer den ezagutzen dut</p> <p style="text-align: center;">BAI GUTXI GORA BEHERA EZ</p> <p>3- Badakit iparrorratza erabiltzen</p> <p style="text-align: center;">BAI GUTXI GORA BEHERA EZ</p> <p>4- Mapa bat irakurtzeko gai naiz</p> <p style="text-align: center;">BAI GUTXI GORA BEHERA EZ</p> <p>5- Naturan distantziak neurtzeko gai naiz</p> <p style="text-align: center;">BAI GUTXI GORA BEHERA EZ</p> <p>6- Naturan egoteko beldurra daukat</p> <p style="text-align: center;">BAI GUTXI GORA BEHERA EZ</p> </div>	
2. Jarduera	Zer dira puntu kardinalak?	Denbora	10 min
<p>Aurreko dinamika jarraituz eta hasierako galderara bueltatuz, mendebaldea zer den galdetuko diegu ikasleei. Jarraian puntu kardinalen kontzeptuarekin lotura egin eta puntu kardinalak zer diren azalduko diegu.</p> <p>Modu praktiko batean ikusteko, jolastokira aterako gara eta jolastokiko zoruan irakasleak puntu kardinalak marraztuko ditu. Lurrean marraztutako iparrorratz hau erabiliz, guztion artean gure inguruko objektuak kokatzen saiatuko gara.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Non dago eguzkia? nondik ateratzen da? - Non dago gimnasioa? eta zuen ikasgela? - Non dago Gasteizko erdialdea? eta Salburuako parkea? eta zuen etxea? 		<p><u>Materiala</u></p> <ul style="list-style-type: none"> - Klera - Iparrorratza 	
3. Jarduera	Iparrorratza erabiltzen ikasi	Denbora	15 min
<p>Aurreko jarduera amaitzean, irakasleak lurreko iparrorratza margotzeko ze tresnaz lagundu den galdetuko du eta lotura hau erabiliz iparrorratzaren</p>		<p><u>Materiala</u></p> <ul style="list-style-type: none"> - Iparrorratza 	

<p>funtzionamendua azalduko du. Ikasleek hau hobeto barneratu ahal izateko, ikasle bakoitzari iparrorratz bat emango diogu eta azalpena ematen dugun bitartean bakoitzak berea behatu beharko du.</p> <p>Azalpena eman ondoren ikasleei 5 minutu libre utziko dizkiegu, iparrorratza probatzeko eta libreki mugitzeko, irakasleak hurrengo jarduera prestatzen duen bitartean.</p>			
<p>4. Jarduera</p>	<p>Puntu kardinalak jarraitzen</p>	<p>Denbora</p>	<p>15 min</p>
<p>Jarduera honetan, jolastokitik zabaldua 9 objektu desberdin egongo dira. Ikasleak bikoteka egongo dira eta bakoitzak rol bat izango du:</p> <p>A ikasleak, orri bat izango du, plano batekin eta puntu kardinal segida batekin (III-a Eranskina). Ikasle honek gida lana egingo du eta beste ikasleari zein puntu kardinalera joan behar den esango dio, jarraibideak erabiliz. Mapa aldiz, bere bikoteak ibilbide zuzena egiten duela egiaztatzeko erabiliko du, objektu desberdinak erreferentziatuz erabiliz.</p> <p>B ikasleak iparrorratza izango du eta puntu batetik bestera mugitu beharko da A ikaslearen jarraibideekin. Ibilbidea bukatzen denean beste bikote batekin papera trukatu eta beste ibilbide bat egingo dute.</p>		<p><u>Materiala</u></p> <ul style="list-style-type: none"> - Jarraibide orria - Iparrorratza  <p><small>★ Hasiera puntua ☾ Amaiera puntua</small></p>	
<p>4. Jarduera</p>	<p>Hausnartzeko tartea</p>	<p>Denbora</p>	<p>5 min</p>
<p>Ikasleekin batera lurrean eseriz saioan ikasitakoaren inguruko hausnarketa bat egingo dugu. Momentu hau aprobetxatuko dugu ikasle bakoitzak emozioen txokoan bere sentimenduak adierazteko eta bakoitzak izandako lorpen eta zailtasunen inguruan hitz egiteko.</p>			

2. Saioa. Ingurune erdi-naturaletara hurbiltzen			
Helburuak	<p>-Eskolatik ingurune erdi-natural batera ateratzea, naturarekin "lehenengo kontaktua" izateko.</p> <p>-Iparrorrazaren bidez espazio zabal batetik mugitzen ikastea</p> <p>-Orientatzeko jarraibideak prestatzen ikastea</p>		
Edukiak	<ul style="list-style-type: none"> - Iparrorrazaren erabilera - Distantzien kalkulua naturan - Ibilbide baten diseinua - Adimen espaziala 		
Agertokia	<p>Aurreko saioari jarraipena emanez saio honetan ikasleak eskolaren mendebaldean dagoen parkera joango dira, Ama Lurraren inguruko pistak bilatzeko.</p> <p>Parke honetan bigarren mezu bat jasoko dute (I-b Eranskina). Mezu honetan, Ama Lurra bilatu ahal izateko ikasleek naturatik mugitzeko ahalmena bereganatu behar dutela aipatzen da, haien orientazio gaitasunak hobetuz.</p>		
Jarduerak		Iraupena: 60 min	
1. Jarduera	Goazen eskolatik kanpo!	Denbora	10 min
<p>Ikasle guztiekin eskolako sarreran bilduko gara eta aurreko saioan landutakoa gogoraraziko dugu. Hau egin ondoren, mendebaldeko parkera joateari ekingo diogu.</p> <p>Honetarako ikasleei iparrorraz bat emango diegu, bikoteka. Zoriz bikote bat hautatu eta bikote honek talde osoa mendebaldeko parkerantz gidatu beharko du. Parkera iristean I-b Eranskineko mezua irakurriko diegu, hurrengo jarduerari zentzua emateko.</p>		<p><u>Materiala</u></p> <p>-Iparrorrazta</p> 	
2. Jarduera	Natura sentitzen	Denbora	15 min

<p>Lehenengo jarduera honetarako ikasleak binaka jarriko dira eta bi rol desberdin ezarriko ditugu; itsua eta makila. Pertsona batek begietan zapi bat jarri beharko du, itsuaren papera eginez eta bestea honen gidaria izan beharko da, makilaren papera eginez. Behin rolak ezarri direnean, makilak itsua espaziotik gidatu beharko du, leku desberdinetara eramanez.</p> <p>Behin bi ikasleek itsua eta makilaren rola egin dutenean, jarduerari zailtasun puntu bat gehituko diogu. Ikasle batek bestea ibilbide batetik gidatuko du; puntu batetik irten, zuhaitz bat ukitu eta berriro hasierara bueltatu. Berriro hasierara bueltatzean, begiak estalita dituen ikasleak zapia kenduko du eta egindako ibilbidea asmatzen saiatu beharko da.</p>		<p><u>Materiala</u></p> <p>- Zapia</p>	
<p>3. Jarduera</p>	<p>Distantziak neurtzen</p>	<p>Denbora</p>	<p>10 min</p>
<p>Naturan mugitzen ikasteko eta mapak hobeto interpretatu ahal izateko, ezinbestekoa da naturan distantziak kalkulatzeko ikastea. Honetarako teknika desberdinak erabili daitezke (gaur egun erlojuak edo telefonoak dira ohikoenak), baina guk modu tradizional batean distantzia neurtzen ikasiko dugu, pausuen bitartez.</p> <p>Guzti hau jarduera honen hasieran ikasleei aipatuko diegu eta jarraian distantziak nola kalkulatu ditzaketen azalduko diegu. Honetarako ikasleen bi pausuk metro bat osatzen dutela azalduko diegu eta horrekin edozein distantzia kalkulatu ahalko dute, biderketa erraz batekin. Hau barneratzeko, bi jolas ezberdin egingo ditugu.</p>		<p><u>Materiala</u></p> <p>- Makil edo adarrak</p>	

<p>Hasteko, ikasleak bikoteka jarriko dira, nahi duten distantziara. Jarraian ikasle bat bestearengana hurbilduko da eta emandako pausuak kontatu beharko ditu, distantzia kalkulatzeko. Hau lau aldiz errepikatuko dute, distantzia desberdinetan.</p> <p>Behin hau eginda, bikote bakoitzari makil bat bilatzeko eskatuko diogu. Hau eginda, bikoteko partaide batek makila ahal duen urrutien jaurtiko du eta besteak zein distantziara jaurti duen kalkulatu beharko du. Jaurtiketa bakoitzaren ostean rolak aldatuko dituzte.</p>			
4. Jarduera	Ibilbidea prestatu	Denbora	20 min
<p>Orain arte ikasitako bi kontzeptuak lotzeko (iparrorrazaren erabilera eta distantzien kalkulua) hurrengo jarduera egingo da.</p> <p>Ikasleak binaka jarriko dira eta bikote bakoitzak iparrorraz bat, orri bat eta boligrafo bat izango du. Bikote bakoitzak ibilbide bat prestatu beharko du, puntu kardinalak eta distantzia zehaztuz. Adibidez: 10 metro hegoaldera, 20 metro ipar-mendebaldera...</p> <p>Ondoren, bikote bakoitza beste bikote batekin elkartuko da eta orriak trukatu dituzte. Hau egitean bikote batek beste bikotearen ibilbidea jarraitu beharko du, besteak epaile lana egingo duen bitartean. Behin ibilbidea egitean, rolak aldatuko dituzte.</p>		<p><u>Materiala</u></p> <ul style="list-style-type: none"> -Iparorraz -Boligrafoa -Orri zuria <div style="border: 1px solid black; padding: 10px; margin-top: 10px;"> <p>10m ekialdera</p> <p>20 mendebaldera</p> <p>15m iparraldera</p> <p>8m mendebaldera</p> </div>	
5. Jarduera	Lasaitze jarduera + Hausnarketa	Denbora	5 min



Ikasleei lurrean etzateko eskatuko diegu, haien artean metro pare bat utziz. Behin guztiak etzanda daudela, begiak itxi eta haien buruan minutu bat kontatzen saiatuko dira. Bakoitzak minutua pasa dela uste duenean, eserita jarriko da.



Hau aitzakia bezala erabiliz, galdetuko diegu ea denbora horretan zehar zer entzun duten (kotxeak, jendea...). Honetatik abiatuz, hausnarketa txiki bat egingo dugu, naturaren eta gizakiak artifizialki sortutako eremu sasi-naturalen inguruan. Hausnarketa amaitzean, ikastetxera bueltatuko gara.





3. Saioa. Oinarrizko mapak interpretatzen




3. Saioa. Oinarrizko mapak interpretatzen			
Helburua	<ul style="list-style-type: none"> -Mapen elementuak identifikatzen ikastea -Mapa bat iparrorratza erabiliz iparrera orientatzen jakitea -Maparen interpretazioan oinarrituz espaziotik desplazatzea 		
Edukiak	<ul style="list-style-type: none"> - Mapen interpretazioa - Adimen espaziala - Oinarrizko gaitasun aerobikoa 		
Agertokia	Natur ingurunean baliagarriak diren gaitasunak lantzen jarraitzeko, Salburua gizarte-etxearen ondoan dagoen parkera joango gara, ingurunez aldatzeko.		
Jarduerak		Iraupena: 90 min	
1. Jarduera	Salburua gizarte-etxekeo parkera	Denbora	5 min



<p>Aurreko saioan egin genuen bezala ikasleak bikoteka jarriko dira eta iparrorratz bat emango diegu. Ondoren, parke berri baten norabidea emango diegu (ipar-mendebaldea) eta bikote horrek taldea Salburuako gizarte-etxeko parkera gidatuko du.</p>		<p><u>Materiala</u></p> <p>-Iparorratza</p> 	
<p>2. Jarduera</p>	<p>Nola erabiltzen da mapa bat?</p>	<p>Denbora</p>	<p>10 min</p>
<p>Parkera iristen garenean, ikasle guztiakin belardi baten gainean eseriko gara eta irakasleak mapa baten funtzionamenduaren azalpena egingo du (elementu desberdinak, nola orientatu, distantziak...)</p> <p>Hau ikasle guztiak argi ikusi eta ulertu ahal izateko, irakasleak mapa handi bat lurrean zabalduko du eta ikasle bakoitzari mapa txiki bat emango dio.</p> <p>Mapa erabiltzen ikasteko, lehenik eta behin, mapa orientatzen ikasi beharko dute. Honetarako irakasleak galdera hau egingo du:</p> <ul style="list-style-type: none"> - "Ba al dakizue mapa bat nola orientatu behar den? non dago puntu kardinal bakoitza?" <p>Eztabaida honen bitartez, irakasleak mapa bat nola orientatu behar den azalduko die: maparen goiko partea iparrera orientatuta behar da, eta honetarako maparen gainean iparrorratza jarri behar dugu. Hau azaldu ondoren, ikasle bakoitza bere mapa iparrerantz orientatzen saiatu beharko da.</p> <p>Behin mapa orientatuta eta ikasle guztiak iparrera begiratzen daudela, mapako elementu desberdinak aztertuko ditugu: bideak, parkeko zona desberdinak, belardiak, etxeak...</p>		<p><u>Materiala</u></p> <p>-Mapa handia</p> <p>-Mapa txikiak</p> <p>-Iparorratza</p> 	


3. Jarduera	Norabideak hartzen ikasten	Denbora	10 min
<p>Behin ikasleek mapako elementuak interpretatzen eta mapa orientatzen ikasi dutenean, iparrorratza eta mapa erabiliz norabideak nola hartu behar diren azalduko diegu, azalpen praktiko bat erabiliz.</p> <p>Erregela eta boligrafo bat erabiliz, ikasle bati gu gauden lekutik mapako beste puntu batera marra zuzen bat egiteko eskatuko diogu. Norantz joan behar dugun jakiteko, iparrorratza eta mapa iparrerantz orientatuko ditugu eta hau egin dugula, ikasleak marraztutako marra zein norabide hartzen duen behatuko dugu. Norabide honen puntu kardinala apuntatu (ekialdea, ipar-mendebaldea...) eta guztiok batera mapan zehaztutako punturantz mugituko gara. Hau bi edo hiru aldiz errepikatuko dugu, ikasleek funtzionamendua ongi ulertu arte.</p>		<p><u>Materiala</u></p> <ul style="list-style-type: none"> -Iparrorratza -Mapa -Erregela -Boligrafoa 	
4. Jarduera	Parketik desplazatzen	Denbora	25 min
<p>Dinamika hau aurrekoaren antzekoa izango da, baina kasu honetan irakasleak laguntzaile moduan jardungo du ikasleak modu autonomoan desplazatzen direlarik.</p> <p>Jarduerari hasiera emateko ikasle batek mapan marra zuzen bat egingo du eta behin hau eginda, bikotekideak marra hau jarraitu beha du, parkeko beste puntura iritsi arte. Prozesu hau bikotekide bakoitzak norabidea 5 aldiz jarraitu arte errepikatuko dute.</p> <p>Irakasleak bikoteren batean zailtasunak antzematen baditu, laguntza eskaini edo jarduera erraztasunarekin burutzen ari den bikote batekin elkartzeko esango die, guztion artean helburua lortu ahal izateko.</p>		<p><u>Materiala</u></p> <ul style="list-style-type: none"> -Iparrorratza -Mapa -Erregela -Boligrafoa 	

5. Jarduera	Jolas librea	Denbora	15 min																																				
<p>Orain arteko jarduera guztiak oso gidatuak izan dira, beraz ikasleei erdi-natur ingurune batean askatasuna uzteko momentua iritsi da.</p> <p>Jarduera honetan, parkeko mugak errespetatuz, ikasleei askatasun osoa utziko diegu, nahi duten jolasetan ibiltzeko. Aldi berean ikastetxean duten "Slack-line"-a jartzeko aprobetxatuko dugu.</p>		<p><u>Materiala</u></p> <p>-Slack-line</p> 																																					
6. Jarduera	Hausnarketa + Koebaluazioa	Denbora	15 min																																				
<p>Jolas librea ondoren saioari amaiera emateko unea izango da, hausnarketa baten bidez.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Zertan jolastu duzue? gizakiak sortutako materialak erabili dituzu? naturan egotearen sententzia izan duzu? <p>Erreflexio honekin behatuko dugu ea parkean gizakiak sortutako materialak erabili dituzten edo aldiz zuhaitz, belardi eta bestelako elementuekin interakziorik izan duten.</p> <p>Hausnarketarekin amaitzean, ikastetxera bueltatuko gara eta bertan ikasleek koebaluazio fitxa (II-b Eranskina) beteko dute. Koebaluazio fitxan saioan izandako bikotekidearen gaitasunak baloratuko dituzte, zer ondo egin duten eta zertan hobetu behar duten jakiteko.</p>		<table border="1" data-bbox="1034 1025 1401 1563"> <thead> <tr> <th data-bbox="1034 1025 1235 1128">IKASLEAREN IZENA</th> <th data-bbox="1235 1025 1297 1128">Egoki egiten du</th> <th data-bbox="1297 1025 1343 1128">Gutxi gora behera</th> <th data-bbox="1343 1025 1401 1128">Hobetu behar du</th> </tr> </thead> <tbody> <tr> <td data-bbox="1034 1128 1235 1182">Iparrorratza egoki erabiltzen du</td> <td data-bbox="1235 1128 1297 1182"></td> <td data-bbox="1297 1128 1343 1182"></td> <td data-bbox="1343 1128 1401 1182"></td> </tr> <tr> <td data-bbox="1034 1182 1235 1236">Mapako elementuak interpretatzen daki</td> <td data-bbox="1235 1182 1297 1236"></td> <td data-bbox="1297 1182 1343 1236"></td> <td data-bbox="1343 1182 1401 1236"></td> </tr> <tr> <td data-bbox="1034 1236 1235 1290">Mapa eta Iparrorratza erabiliz orientatzen da</td> <td data-bbox="1235 1236 1297 1290"></td> <td data-bbox="1297 1236 1343 1290"></td> <td data-bbox="1343 1236 1401 1290"></td> </tr> <tr> <td data-bbox="1034 1290 1235 1344">Naturan segurtasunaz mugitzen da</td> <td data-bbox="1235 1290 1297 1344"></td> <td data-bbox="1297 1290 1343 1344"></td> <td data-bbox="1343 1290 1401 1344"></td> </tr> <tr> <td data-bbox="1034 1344 1235 1397">Naturan distantziak neurtzeko gai da</td> <td data-bbox="1235 1344 1297 1397"></td> <td data-bbox="1297 1344 1343 1397"></td> <td data-bbox="1343 1344 1401 1397"></td> </tr> <tr> <td data-bbox="1034 1397 1235 1451">Naturarekiko errespetua adierazten du</td> <td data-bbox="1235 1397 1297 1451"></td> <td data-bbox="1297 1397 1343 1451"></td> <td data-bbox="1343 1397 1401 1451"></td> </tr> <tr> <td data-bbox="1034 1451 1235 1505">Taldea lana egiten ondo konpontzen da</td> <td data-bbox="1235 1451 1297 1505"></td> <td data-bbox="1297 1451 1343 1505"></td> <td data-bbox="1343 1451 1401 1505"></td> </tr> <tr> <td data-bbox="1034 1505 1235 1563">Natur inguruneen garrantzia ulertzen du</td> <td data-bbox="1235 1505 1297 1563"></td> <td data-bbox="1297 1505 1343 1563"></td> <td data-bbox="1343 1505 1401 1563"></td> </tr> </tbody> </table>		IKASLEAREN IZENA	Egoki egiten du	Gutxi gora behera	Hobetu behar du	Iparrorratza egoki erabiltzen du				Mapako elementuak interpretatzen daki				Mapa eta Iparrorratza erabiliz orientatzen da				Naturan segurtasunaz mugitzen da				Naturan distantziak neurtzeko gai da				Naturarekiko errespetua adierazten du				Taldea lana egiten ondo konpontzen da				Natur inguruneen garrantzia ulertzen du			
IKASLEAREN IZENA	Egoki egiten du	Gutxi gora behera	Hobetu behar du																																				
Iparrorratza egoki erabiltzen du																																							
Mapako elementuak interpretatzen daki																																							
Mapa eta Iparrorratza erabiliz orientatzen da																																							
Naturan segurtasunaz mugitzen da																																							
Naturan distantziak neurtzeko gai da																																							
Naturarekiko errespetua adierazten du																																							
Taldea lana egiten ondo konpontzen da																																							
Natur inguruneen garrantzia ulertzen du																																							

4. Saioa: Orientazio ibilbidea			
Helburua	<ul style="list-style-type: none"> - Mapa eta iparrorrazarekin orientatzea, denbora muga batekin - Planifikatutako ekintza gauzatzeko gai izatea - Bikotearen talde lanari esker helburu bat lortzea 		
Edukiak	<ul style="list-style-type: none"> - Iparrorraz eta maparen erabilera - Adimen espaziala - Gaitasun aerobikoa - Talde lana 		
Agertokia	<p>Aurreko saioetako edukiak gehiago barneratzeko, orientazio lasterketa moduko bat prestatuko dugu, haien gaitasunetara egokitua.</p> <p>Honi testuingurua emateko, I-d Eranskineko gutuna irakurriko dugu. Behatu daitekeen bezala gutunaren zati bat falta da eta honen zatiak parketik sakabanatuta egongo dira.</p>		
Jarduerak		Iraupena: 90 min	
1. Jarduera	Salburua gizarte-etxeako parkera	Denbora	10 min
<p>Aurreko saioan bezala, Salburuako gizarte-etxearen ondoan dagoen parkera joango gara, lehengo egunean ikasitako edukiak lantzen jarraitzeko.</p> <p>Honetarako oso baliagarria izango da ikasleek dagoeneko ingurune horretako mapa eta kokaleku desberdinak ezagutzea, saioan egingo dugun orientazio lasterketan segurtasunez desplazatzeko.</p>		<p><u>Materiala</u></p> <p>-Iparrorrazta</p> 	
2. Jarduera	Zuhaitza etxea da	Denbora	15 min

<p>Orientazio lasterketa baina lehen, beroketa jolas bat egingo dugu, pultsazioak igotzeko eta saioari hasiera emateko.</p> <p>Jolas hau harrapaketa jolas arrunt bat izango da, zuhaitzek "etxe" funtzioa egiten dutelarik. Arauak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ezin da zuhaitzean 10 segundo baina gehiago egon - Ezin da bi aldiz jarraian zuhaitz berdina ukitu 			
<p>3. Jarduera</p>	<p>Orientazio lasterketa</p>	<p>Denbora</p>	<p>45 min</p>
<p>Orain arte ikasitako kontzeptu guztiak praktikan jartzeko, orientazio ibilbide bat prestatuko dugu.</p> <p>Honen kontestu moduan, I-d Eranskineko gutuna irakurriko dugu. Behatu daitekeen bezala, gutunaren zati bat puskatuta dago eta honen zatiak parketik galdu dira.</p> <p>Zati hauek aurkitzeko, ikasleak 4-ko taldeetan jarriko dira eta mapa batean zehaztutako 6 kokapen desberdinetan gutunaren pieza hauek aurkitu beharko dituzte (III-b Eranskina). Aurkitzen duten puntu bakoitzean bi letra dituen paper zati bat bildu beharko dute.</p> <p>Talde bakoitzak ibilbide desberdin bat jarraituko du, baina puntu berdinetatik pasako dira guztiak eta talde guztiek 30 minutu izango dituzte ibilbide hau osatzeko.</p> <p>Talderen batek punturen bat aurkitzen ez badu, irakasleari edo beste talde bati laguntza eskatu ahalko dio, denbora askoz puntu bat bilatzen egoten ekiditeko.</p>		<p><u>Materiala</u></p> <ul style="list-style-type: none"> - Gutunaren zatiak - Iparrorratza - Mapa 	 

<p>Behin talde guztiek haien letrak aurkitu dituztenean, paper zati desberdinak guztion artean ordenatu beharko ditugu, galdu den esaldia osatzeko. Hau egin ahal izateko, paper zati bakoitzaren atzeko aldean zenbaki bat egongo da eta ikasleek paper zatiak horren arabera ordenatu beharko dituzte. Honako esaldi hau osatzea lortu beharko dute:</p> <p>“Salburuako hezegunean dauden izaki mitologikoek” (I-d Eranskina)</p>			
<p>4. Jarduera</p>	<p>Non dago Salburuako hezegunea</p>	<p>Denbora</p>	<p>20 min</p>
<p>Falta ziren zatiak aurkituz, gutuna bere osotasunean irakurtzeko gai izango gara. Beraz, orientazio ibilbidea amaitu ostean berriro gutuna irakurriko dugu, pista honek nora garamatzen aztertzeko.</p> <p>Gutunean Salburuako hezegunea aipatzen da, beraz hona joan beharko dugu, baina... non dago Salburuako hezegunea?</p> <p>Ikasleei galdera hau egingo diegu, haiek hezegunea non dagoen azaltzeko gai diren ikusteko. Guztiok Salburuako hezegunea non dagoen argi behatzeko, klasera bueltatuko gara eta bertan ordenagailu bidez informazio hau bilatuko dugu.</p> <p>Ordenagailuko mapa begiratzuz Salburuako hezegunea zein norabidetan dagoen zehaztuko dugu eta gure iparrorratza erabiliz norabide hau zein den behatuko dugu.</p>		<p><u>Materiala</u></p> <p>-Ordenagailua</p> 	


5. Saioa: Goazen Salburuako hezegunera!			
Helburuak	<ul style="list-style-type: none"> - Ingurune naturala batean murgiltzea - Ingurune natural batean orientatzen ikastea - Euskal izaki mitologiko desberdinak ezagutzea 		
Edukiak	<ul style="list-style-type: none"> - Iparrorratz eta maparen erabilera - Euskal izaki mitologikoak - Ingurune naturalak zaintzearen garrantzia 		
Agertokia	Aurreko saioan bildu genuen azkeneko pistak Salburuako hezegunera joateko zioen. Hau jarraituz, bertara joango gara eta han talde bezala ibilbide bat egingo dugu, euskal mitologiako izaki desberdinak ezagutzeko.		
Jarduerak		Iraupena: 150 min	
1. Jarduera	Goazen Salburuako hezegunera	Denbora	20 min
Aurreko saioan, ordenagailua erabiliz Salburuako hezegunearen norabidea zehaztu genuen. Kasu honetan bikote desberdinek ibilbidean zehar gidatuko gaituzte, bertara iritsi arte.		Materiala	<ul style="list-style-type: none"> -Iparrorratza 
2. Jarduera	Izaki mitologikoak aurkitu	Denbora	95 min
Azken gutunean irakurri genuen moduan, parke honetan dauden izaki mitologikoek Ama Lurra bilatzeko beharrezkoa dugun informazioa eskainiko digute. Saio honetan zehar talde moduan ibilbide bat osatuko dugu (III-d Eranskinen ibilbidea), baina hala ere ikasle		Materiala	<ul style="list-style-type: none"> -Iparrorratza -Mapa -Kartak

bakoitzak bere mapa eta bere iparrorratza izango du, bidegurutze desberdinetan erabakiak hartu ahal izateko, ondoren talde bezala hauen inguruan eztabaidatzeko.

Ibilaldi honen puntu desberdinetan, izaki mitologikoen kartak (III-e Eranskina) aurkituko ditugu. Karta hauen alde batean izaki mitologikoen informazioa idatzita egongo da eta hau ikasleei irakurriko diegu. Puntu bakoitzean informazioa irakurri ondoren ibiltzen jarraituko dugu eta ibilaldia izakiaren inguruan hitz egiteko edo ikusten dugun landare eta animalia desberdinen inguruan eztabaidatzeko aprobeztatuko dugu.

Karta guztien aurreko aldean izaki mitologiko bakoitzaren argazkia eta honek proposatzen digun joko-jolasa egongo dira idatzita. Hau hurrengo saioetan erabiltzeko izango da, izaki mitologiko bakoitzak hobeto ezagutzeko.



3. Jarduera	Ikastetxera bueltatu	Denbora	20 min
Behin ibilbidea osatu dugula, ikastetxera bueltatzeko unea izango da. Kasu honetan irakasleak taldea gidatuko du eta ikasleek atsedean aktibo bat egiteko aprobeztatuko dute.			
4. Jarduera	Hausnarketa + Autoebaluazioa	Denbora	15 min

Ikastetxera iristean gaurko saioaren inguruko hausnarketa bat bultzatuko dugu, honako galderak eginez:


- Zer iruditu zaizue ibilaldia? naturan zeundela sentitu duzue? zer ikasi duzue gaur?
- Izaki hauek ezagutzen zenituzten? nondik datoz? zein helburu zuten antzinako gizarteetan?



Saioarekin amaitzeko ikasle bakoitzak hasieran egindako autoebaluazio fitxa berriro beteko du, orain arte eginiko 5 saioetan izandako progresioa behatzeko, eta saio hauen bitartez bereganatu dituen gaitasunez ohartarazteko.



Izena: _____	Data: _____	
1- Puntu kardinalak ezagutzen ditut:		
BAI	GUTXI GORA BEHERA	EZ
2- Iparrorratz bat zer den ezagutzen dut		
BAI	GUTXI GORA BEHERA	EZ
3- Badakit iparrorratza erabiltzen		
BAI	GUTXI GORA BEHERA	EZ
4- Mapa bat irakurtzeko gai naiz		
BAI	GUTXI GORA BEHERA	EZ
5- Naturan distantziak neurtzeko gai naiz		
BAI	GUTXI GORA BEHERA	EZ
6- Naturan egoteko beldurra daukat		
BAI	GUTXI GORA BEHERA	EZ

6. Saioa: Izaki mitologikoen joko-jolasak

Helburua	<ul style="list-style-type: none"> -Euskal joko-jolas desberdinak ezagutzea -Ziurgabetasuna duten joko eta jolasetan parte hartzea -Ikasleek joko-jolasen dinamika eta arauak jarraituz jardutea
Edukiak	<ul style="list-style-type: none"> - Euskal joko-jolasak - Abiadura - Ziurgabetasuna duten joko-jolasak - Euskal izaki mitologikoak - Estrategia
Agertokia	<p>Azkeneko saioan izaki mitologiko desberdinen kartak aurkitu genituen eta hurrengo hiru saioetan ikasleek karta hauetan adierazitako euskal joko-jolas tradizioaletan jolastuko dira.</p> <p>Honetarako eremu bezala Olarizuko parkea erabiliko dugu, laua, garbia eta naturala den eremua eskaintzen digulako.</p>



	<p>Parke honetara iristeko bizikleta erabili daiteke (ikastetxe ondoan dagoen bidegorritik 15 minututan iritsiz).</p> <p>Ikasle guztiek bizikleta ez badute, autobusez mugitu gaitezke bertara edo bestela hurbilago dagoen beste eremu natural bat erabili, Salburuako hezegunea adibidez.</p>		
<p style="text-align: center;">Jarduerak</p>		<p style="text-align: center;">Iraupena: 90 min</p>	
<p>1. Jarduera</p>	<p>Beroketa jolasa: Haria moztu</p>	<p>Denbora</p>	<p>10 min</p>
<p>Olarizuko parkera iristean, gaurko jarduerak egiteko aproposa den kokaleku batera joango gar, eta guztiok biribil batean elkartuz, hurrengo saioetako dinamika azaltzeari ekingo diogu.</p> <p>Azalpen honen bidez izaki mitologiko bakoitzak proposatzen digun euskal joko-jolas tradizional desberdinak ezagutuko dituztela azalduko diegu, gure kultura motorraren atal hau ezagutu dezaten. Sarrera honekin amaitzean, beroketa jolasaren azalpena egitera igaroko gara, saioari hasiera emanez.</p> <p>Jolas honetarako harrapakari bat izendatuko dugu eta pertsona honek jolasa hasteko izen bat esango du, pertsona hori harrapatzera abiatuz. Batak bestea harrapatzen jarraituko dute, harrapatzaileak bestea harrapatu arte edo bien artean beste pertsona bat pasatu arte. Azkeneko hau gertatuz gero, "haria moztuko du" eta harrapakaria bien artean pasa den pertsona harrapatzera joan beharko da.</p> <p>Norbait harrapatua izatean, harrapakari bilakatuko da eta beste izen bat esanez jolasari jarraipena emango dio, beste ikasle hau harrapatzera joanez.</p>		<p><u>Barne logika</u></p> <p>Memoriarik gabea</p> <p>Soziomotorra (kolaborazio-oposizio)</p> <p>Materialik ez</p> 	


2. Jarduera	Basajauna (ezkutaketa)	Denbora	15 min
<p>Beroketarekin amaitu ostean, saioaren atal nagusira igaroko gara, hau da, izaki mitologikoek proposatzen dizkiguten euskal joko-jolas tradizionaletan jolastera. Jolasa hasi baina lehen irakasleak minutu pare batean jolas honen jatorria azalduko du eta ondoren Basajaunarekin duen lotura (basoa babestea) azalduko du.</p> <p>Jolas honetan, ikasle batek Basajaunaren rola izango du (ileorde eta bizarra jarrita) eta beste ikasle guztiak harengandik ezkutatu beharko dira. Basajaunak zuhaitz bati pegatuta begiak itxi eta 20 zenbakia arte zenbatu beharko du. Bitartean beste ikasle guztiak lekuren batean ezkutatzera ihes egingo dute. Hortik aurrera Basajaunak gainontzeko ikasleak bilatu beharko ditu.</p> <p>Ikasle bat aurkitzean, bere zuhaitzera joan eta haren izena esango du, eta izena zuzena bada, ezkutalekutik irten eta eliminatuta egongo da. Ikasle guztiak aurkitzean, aurkitutako lehenengo ikaslea Basajauna bilakatuko da, jolasari berriro hasiera emanez.</p>		<p><u>Barne logika</u></p> <p>Memoriaduna</p> <p>Soziomotorra (oposizioa)</p> <p>Materiala: Mozorroa</p>  	
3. Jarduera	Galtzagorriak (arima)	Denbora	20 min
<p>Jarraian arima jolas tradizionalera jolastuko dugu, baina galtzagorrien tematika erabilita, beraz, arimaren kontzeptua erabili ordez, txanpon kontzeptua erabiliko da.</p> <p>Jarduerarekin hasteko bi talde egingo ditugu eta talde bakoitza aurrez aurre dauden bi zuhaitzetan kokatuko da. Behin bi taldeak prest daudela, irakasleak ikasle baten izena esango du eta ikasle horrek txanpona</p>		<p><u>Barne logika</u></p> <p>Memoriaduna</p> <p>Soziomotorra (kolaborazio-oposizioa)</p> <p>Materialik ez</p>	



<p>izango du (ez benetakoa, baizik eta modu figuratu batean)</p> <p>Jolas honen helburua txanpona duen galtzagorriak (ikasleak), txanpona bere zuhaitzeraino eramatea da, hau da, beste taldeak babesten duen zuhaitzeraino. Hau saihesteko, beste taldeko edozein pertsonak txapona duen ikaslea ukitu dezake, eta momentu horretan txapona ikasle batetik bestera transferituko da.</p> <p>Jolas honen oinarria talde estrategia da, eta irabazteko taldekideak ondo babestea ezinbestekoa da. Kontzeptu hau argi izan behar dute ikasleek hasieratik, bestela jolasak ez du dinamika egoki bat jarraituko.</p>			
<p>4. Jarduera</p>	<p>Lamia (erreka gurutzatu)</p>	<p>Denbora</p>	<p>10 min</p>
<p>Saio honetako azkeneko jolasa erreka gurutzatu jolas tradizionalaren moldaketa bat da, Lamiarekin lotuta. Jolasarekin hasi baina lehen ikasleei Lamiaren kondaira gogoraraziko diegu eta jarraian jolasaren azalpena egingo dugu.</p> <p>Jolas honetarako, bi ikasle Lamiak izango dira eta hauek harrapari lana egingo dute, eremuaren erdialdean kokatuz. Gainontzeko ikasleak eremu horren alde batean egongo dira.</p> <p>Jolasari hasiera emateko ikasleek honakoa oihukatuko dute: Kaixo, erreka gurutzatu dezakegu? Eta honi Lamiak honakoa erantzungo dute: Bai, baina ____ igarotzen baduzue.</p> <p>Momentu horretan, Lamiak arau bat jarriko dute (hanka batean salto eginez, igelak bezala salto eginez....) eta ikasle guztiek arau hori betez igaro beharko dute.</p>	<p><u>Barne logika</u></p> <p>Memoriaduna</p> <p>Sozomotorra (kolaborazio-oposizioa)</p> <p>Materialik ez</p> 		

<p>Lamiek ere jartzen duten araua errespetatuz harrapatu beharko dute.</p> <p>Joan etorri bakoitzean harrapatutako ikasleak, Lamia bilakatuko dira, eta jolasa ikasle guztiak harrapatuak izatean bukatuko da. Orduan Lamia berri batzuk ezarri eta jolasari berriro ekingo diogu.</p>			
4. Jarduera	Hausnarketa	Denbora	5 min
<p>Ikasleei lurrean etzateko eskatuko diegu, haien artean metro pare bat utziz. Behin guztiak etzanda daudela, begiak itxi eta minutu batez isilik egongo gara.</p> <p>Behin pultsazioak jaitsita, gaur eginiko jolasen inguruko hausnarketa bat bultzatuko dugu, ikasleek naturan eginiko jolas hauekin sentitu dutena behatzeko. Ikasle bakoitzak bere iritzia emateko aukera izateko, zirkulu batean eseriko gara, eta nahi duen guztiari hitza emango diogu.</p>			



7. Saioa: Izaki mitologikoen joko-jolasak 2	
Helburua	<ul style="list-style-type: none"> -Euskal joko-jolas desberdinak ezagutzea -Ziurgabetasuna duten joko eta jolasetan parte hartzea -Ikasleek joko-jolasen dinamika eta arauak jarraituz jardutea
Edukiak	<ul style="list-style-type: none"> <li style="width: 50%;">- Euskal joko-jolasak <li style="width: 50%;">- Euskal izaki mitologikoak <li style="width: 50%;">- Punteria eta abiadura <li style="width: 50%;">- Estrategia <li style="width: 50%;">- Ziurgabetasuna duten joko-jolasak



Jarduerak		Iraupena: 90 min	
1. Jarduera	Tartalo (Pi jolasa)	Denbora	20 min
<p>Aurreko saioan bezala, Olarizuko parkera iritsi bezain laster gaurko jarduerak aurrera eramateko egokia den leku batera joango gara. Bertan saioaren azalpen labur bat egingo dugu eta jarraian lehenengo jolasarekin hasiko gara.</p> <p>Lehenengo jolas hau, Pi zenbaketa izena duen jolas tradizionalaren moldaketa bat da. Pi jolasa, ezkutaketa jolasaren antzekoa da baina dinamika desberdina batekin. Jolas hau hasi baina lehen irakasleak minutu pare batean jolas honen jatorria azalduko du eta ondoren Tartalo izaki mitologikoarekin duen lotura (bere kobazuloa babestea).</p> <p>Jolas honetan ikasle batek Tartaloren papera egingo du (begi bat estaliz) eta bere helburua gainontzeko ikasleak bilatzea izango da. Gainontzeko ikasleak beregandik ezkutatu beharko dira eta honetarako Tartalok zuhaitz bati pegatuta 20 zenbakia arte zenbatu beharko du.</p> <p>Behin zenbaketa bukatzean, Tartalok 10 pausu eman ahalko ditu, ahalik eta ikasle gehien aurkitzeko. Ikasle bat ikustean, honen izena esan eta ikasle hau eliminatu egingo da. Ikasle gehiago aurkitzen ez dituenean, zuhaitzera bueltatu eta begiak itxiko ditu, berriro ere zenbatzeko, baina kasu honetan 19 zenbakia arte.</p> <p>Momentu honetan gainontzeko ikasleak bere ezkutalekutik atera, Tartalo ukitu eta berriro ezkutatu beharko dira. Prozesu hau ikasle guztiak aurkituak izan arte errepikatuko da, aldiro zenbaki bat gutxiago zenbatuz, Tartaloren lana errazteko.</p>		<p><u>Barne logika</u></p> <p>Memoriaduna</p> <p>Soziomotorra (oposizioa)</p> <p>Materiala: Zapia</p>  	

2. Jarduera	Errolan (Golf)	Denbora	15 min
<p>Behin lehenengo jolasa amaituta, berriro ere zirkulu batean elkartuko gara, hurrengo jolasaren azalpena egiteko. Errolan antzina harri handiak jaurtitzen zituen pertsonaia bat da eta honetatik abiatuz, golfaren antzekoa den jolas bat proposatuko dugu. Jolasa hasi baina lehen irakasleak azalpen hau egingo du, jolasaren jatorri eta moldaeraren ezaugarriak adieraziz.</p> <p>Jolas honetarako ikasleak bikoteka jarriko dira eta plastikozko baloi bat emango diegu. Ondoren bikote bakoitzak beste bikote bat aukeratuko du eta haien artean lehiatu beharko dira. Laukote bakoitzak helmuga puntu bat erabakiko du (zuhaitz bat, harri bat...) eta jolasaren helburua ahalik eta kolpe gutxien emanaz puntu hori baloiarekin ukitzea izango da.</p> <p>Arauei dagokionez, baloia gorputzeko edozein atalekin kolpatu daiteke eta bikotekide bakoitzak txandaka kolpatu beharko du. Bi bikoteak helmugara iristean, partida amaitutzat emango da eta laukote berriak osatu beharko dituzte, helmuga berriak zehaztuz.</p>		<p><u>Barne logika</u></p> <p>Memoriaduna</p> <p>Soziomotorra (kolaborazio-oposizioa)</p> <p>Materiala: Baloia</p> 	
3. Jarduera	Iratxoak (lokotx bilketa)	Denbora	20 min
<p>Azkeneko jarduera, lokotx bilketa joko tradizionalaren moldaera bat izango da, iratxoei eta naturako elementuei moldatuta. Iratxoak imitatuz, ikasleek lurrean dauden objektu desberdinak bildu beharko dituzte eta kasu honetan objektu hauek lurrean dauden makil txikiak izango dira, lokotxen ordez. Jolastu baina lehen, jolas hau euskal lanbideetan oinarrituta dagoen jolas bat dela azalduko diegu.</p>		<p><u>Barne logika</u></p> <p>Memoriaduna</p> <p>Soziomotorra (oposizioa)</p> <p>Materiala: makiltxoak</p>	

<p>Jolasari hasiera eman ahal izateko, lehenik eta behin eremutik makil eta adar ugari jaso behar ditugu. Behin hau egin dutela, adar guztiak 4 multzo desberdinetan banatuko ditugu eta lokotx bilketara jolasteko prestatuko ditugu.</p> <p>Lokotx bilketa egiteko, ilara bakoitzean 15 makil kokatuko ditugu (metro bateko distantziarekin), guztira 4 ilara eginez. Talde bakoitza makil ilara bakoitzaren hasieran kokatuko da eta jolasari hasiera ematean taldekideak txandaka atera beharko dira makilak biltzera. Jolasa makil guztiak azkarren biltzen dituen taldeak irabaziko du.</p>			
<p>4. Jarduera</p>	<p>Hausnarketa</p>	<p>Denbora</p>	<p>5 min</p>
<p>Ikasleei lurrean etzateko eskatuko diegu, haien artean metro pare bat utziz. Behin guztiak etzanda daudela, begiak itxi eta minutu batez isilik egongo gara.</p> <p>Behin pultsazioak jaitsita, gaur eginiko jolasen inguruko hausnarketa bat bultzatuko dugu, ikasleek naturan eginiko jolas hauekin sentitu dutena behatzeko. Ikasle bakoitzak bere iritzia emateko aukera izateko, zirkulu batean eseriko gara, eta nahi duen guztiari hitza emango diogu.</p>			

<p>8. Saioa: Proposamenaren amaiera</p>	
<p>Helburua</p>	<ul style="list-style-type: none"> -Euskal joko-jolas desberdinak ezagutzea -Ikasleek joko-jolasen dinamika eta arauak jarraituz jardutea -Proposamenari amaiera ematea

Edukiak	<ul style="list-style-type: none"> - Euskal joko-jolasak - Abiadura - Ziurgabetasuna duten joko-jolasak 	<ul style="list-style-type: none"> - Euskal izaki mitologikoak - Estrategia
Jarduerak		Iraupena: 90 min
1. Jarduera	Gaueko, Herensuge eta Akerbeltz (azeria, oiloa eta sugea)	Denbora 15 min
<p>Azkeneko saio hau aurrera eramateko Olarizuko parkea erabiliko dugu eta bertan ahal den espazio zabalena bilatzen saiatuko gara. Parkera iristean taldea bildu eta lehenengo jolasaren azalpenarekin hasiko gara jolasaren jatorria, moldaera eta arauak azalduz.</p> <p>Gaueko, Herensuge ta Akerbeltz jolasa 3 talderen arteko harrapaketa jolasa da, azeria, sugea eta oiloaren antzera, baina kasu honetan talde bakoitza irudikatzen duen animalia animalia mitologiko bategatik aldatuko dugu, gaiarekiko koherentea izateko.</p> <p>Jolas honetarako hiru talde egingo ditugu, talde bakoitzak bere etxea (zuhaitza) duelarik eta talde bakoitzaren helburua beste talde bateko kide guztiak harrapatzea izango da, hirugarren taldetik ihes egiten duen bitartean.</p> <p>Beste taldeko pertsona bat harrapatzen den momentuan, harrapatutako pertsona haien zuhaitzera eraman beharko dute, kartzela moduan. Kartzelan dauden taldekideak salbatzeko, beste taldearen zuhaitzera joan behar da eta taldekideetako bat ukitu. Jolasa amaitzeko talde batek, beste taldeko kide guztiak harrapatu beharko ditu, guztiak haien zuhaitzean daudelarik.</p>		<p><u>Barne logika</u></p> <p>Memoriaduna</p> <p>Soziomotorra (kolaborazio-oposizioa)</p> <p>Materialik ez</p>  

2. Jarduera	Izaki mitologikoen jolasa	Denbora	25 min
<p>Saio honetako bigarren eta azken jolasa proposamen honetarako bereziki eratua izan da, eta izaki mitologikoen kartak erabiliz (III-e Eranskina), ingurune ziurgabe batean garatuko den harrapaketa jolas bat izango da.</p> <p>Jolas honetarako pertsona kopuru berdina duten bi talde egingo ditugu eta talde bakoitzak bere etxea (zuhaitza) zehaztuko du. Talde bakoitzari izaki mitologikoen 40 karta emango zaizkio eta karta guzti horiek bere zuhaitzaren azpian jarri beharko dituzte.</p> <p>Jokalari bakoitzak karta bat hartzean jolasa hasiko da. Jolasaren helburua, beste taldeko Ama Lurra harrapatzea izango da eta jolasaren dinamika hurrengoa da:</p> <p>Jokalari bakoitzaren kartak zenbaki bat dauka, beraz ikasleek haien kartak baina balore gutxiago duen ikasleak bakarrik harrapatu ahalko dituzte. Bi ikasle elkartzean haien kartak erakutsiko dituzte eta galtzaileak (karta baxuagoa duenak) bere zuhaitzera joan beharko du karta berri baten bila.</p> <p>Beste taldeko Ama Lurra harrapatzeko (10 puntuko karta), berez ezingo luke beste inork harrapatu, hau ahalbidetzeko Herensugea (1 puntuko karta) duen ikasleak, Ama Lurra harrapatu ahalko du.</p> <p>Horrela, Herensugeak beste ikasle guztiengandik ihes egin beharko du (guztiok harrapatu ahal dutelako) eta babesean jarri beharko da, momenturen batean kontrako taldeko Ama Lurra harrapatzeko.</p>		<p><u>Barne logika</u></p> <p>Memoriaduna</p> <p>Soziomotorra (kolaborazio-oposizioa)</p> <p>Materiala: kartak</p>  	

4. Jarduera	Azken hausnarketa	Denbora	10 min
<p>Izaki mitologikoen jolasarekin amaitu ostean, ikasle guztiekin zirkulu bat osatuko dugu, azkeneko hausnarketa bat egiteko. Momentu hau proposamen osoan zehar izandako bizipenak azalertzeko eta egindako jardueren inguruan duten iritzia kanporatzeko erabiliko dugu.</p> <p>Behin jardueren inguruan hitz eginda, hausnarketa naturaren garrantzirantz bideratuko dugu eta momentu honetan proposamen osoan zehar bilatzen egon erantzuna emango diegu: non dago Ama lurra?</p> <p>Ikasleei azalduko diegu Ama Lurra naturan egotearekin berriro ere aurkitu dugula eta oso garrantzitsua izango dela hemendik aurrera ahal duten heinean naturara joatea eta bertan jarduerak egitea. Ama Lurra gure zati bat da eta antzenetik oso erlazio estua izan dugu berarekin, beraz gure izaera eta kultura babesten jarraitzeko, Ama Lurra zaindu beharra daukagu.</p>			
4. Jarduera	Euskal joko-jolasen Kahoot-a	Denbora	10 min
<p>Hausnarketarekin amaitzean ikastetxera bueltatuko gara eta bertan proposamenari amaiera emango dion ebaluazio jarduera egingo dugu: euskal joko-jolasen eta izaki mitologikoen Kahoot-a.</p> <p>Kahoot hau azkeneko hiru saioetan landutako edukien ingurukoa izango da eta guztira 15 galdera izango ditu. Galderak orokorrean joko-jolasen arau edo dinamika eta izaki mitologikoen ingurukoak izango dira eta ikasleek ordenagailuaren bidez erantzungo dituzte, bakarka.</p>			

4. Ondorioak eta hausnarketa pertsonala

Lehenik eta behin lan hau egitean izan dudan motibazio eta interesa azalatu nahiko nuke. Izan ere, gai honen aukeraketaren atzean (justifikazioan aipatu dudan bezala) arrazoi eta motibazio pertsonal sendoak izan nituen hasieratik, eta honek lanaren gaien benetan inplikaturik egotea eragin dit. Honi esker lanerako informazioa bildu behar izan dudanean (artikuluak, liburuak, bideoak, konferentziak...) barne motibazio erreala sentitu dut, nire etorkizunerako informazio baliagarri bezala hartu dudalako.

Lanaren garapenari dagokionez, proposamen didaktiko baten ezaugarri eta eskakizun guztiak egoki betetzen dituela uste dut. Hasteko, lanaren zergati edo abiapuntua gaur egun gure gizartean dugun arazo erreal batetik abiatzen da. Guzti hau, oinarri teoriko sendo eta egituratu batekin babesten da eta oinarri teoriko honek aldi berean lana proposamenerantz gidatzen du. Azkenik, atal teorikoan aipatutako guztia kontestu erreal batean aplikatzeko proposamena egiten da, kontestu jakin honen ezaugarriak kontutan hartuz.

Gradu Amaierako Lan hau egiterako orduan izan dudan muga nagusia, proposamena aurrera eramateko aukera ez izatea izan da. Alde batetik kurtsoaren berezitasunak (Covid-19-aren ondorioz) eta ondoren praktikan egon naizen ikastetxean aurkitutako mugak (saioak zehaztuta egotea, Gorputz Hezkuntzako irakaslearen aldaketa...) proposamena praktikan jartzea eragotzi dute. Nire ikuspuntutik oso interesgarria izan izango litzake hau egiteko aukera izatea, izan ere oinarri teorikoan azaldu dudan bezala Covid-19 egoera pisuzko arazoia bihurtu da ikasleak gimnasio eta ikastetxeetatik ateratzeko, eta aire libreko jarduerak egiteko.

Amaitzeko adierazi nahiko nuke lan hau natur jardueren inguruan eginiko lehenengo urratsa bezala hartzen dudala, eta etorkizunari begira espero dut esparru honetan hezkuntza munduan ekarpen gehiago egiteko eta nik nire saioetan honelako dinamikak aurrera eramateko aukera izatea.

5. Bibliografía

- Alòs, M. eta Masferrer, F. (2014). *8 ideas clave. Los proyectos interdisciplinarios*. Graó.
- Abella, I. (2007). *La memoria del bosque: crónicas de la vieja selva europea*. Integral.
- Baena, A. eta Granero A. (2008). Las actividades físicas en la naturaleza en el currículum actual: contribución a la educación para la ciudadanía y los derechos humanos. *Retos*, 14, 48-53.
- Baena, A. (2017). Educación Física en la Naturaleza en España. Panorama y perspectivas. *Cuadernos de pedagogía*.
- Caballero, P. (2012). Potencial educativo de las actividades físicas en el medio natural: actividades de cooperación simple. *Revista Digital de Educación Física*.
- Caballero, P. (2014). El desarrollo positivo y las actividades físicas en el medio natural. *Tándem*, 45, 42-52.
- Caballero, P., Hernández-Hernández, E. eta Reina del Valle, M. (2018). Análisis de los factores universales de las actividades físicas en el medio natural / actividades físicas de aventura en la naturaleza: estudio preliminar. *Espiral Cuadernos del Profesorado*, 11.
- Centers for Disease Control and Prevention. (2012). Morbidity and Mortality Weekly Report Surveillance Summaries, 61.
- Dahle, B. (2007). *Nature first: Outdoor life the friluftsliv way*. Natural Heritage Books.
- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila (2015). Heziberri 2020. Hezkuntza-eredu pedagogikoaren markoa.
- Finn, K., Yan, Z. eta McInnis, K. (2018) Promoting Physical Activity and Science Learning in an Outdoor Education Program. *Journal of Physical Education, Recreation and Dance*, 89, 35-39.
- Freire, H. (2011). *Educar en verde. Ideas para acercar a niños y niñas a la naturaleza*. Graó.

- Funollet, F. (1989) Las actividades en la naturaleza. Origen y perspectivas de futuro. *Apunts*, 18, 4-11.
- Gelter, H. (1999). Fritluftsliv: The Scandanavian philosophy of outdoor life. *Canadian Journal of Environmental Education*, 5, 77-90.
- Granero, A., eta Baena, A. (2007). Importancia de los valores educativos de las actividades físicas en la naturaleza. *Agora* 12, 237-288.
- Hernández, F. eta Ventura, M. (2010). Curriculum lan-proiektuen bidez nola antolatu: ezagutza kaleidoskopio bat da. Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua.
- Heziketa Fisiko eta Kirolaren Kontseilu Nagusia (2020). Recomendaciones docentes para una educación física escolar segura y responsable ante la "Nueva normalidad". *Espainiako Kirol eta Jarduera Fisikoaren aldizkaria*, (429), 85.
- Hortigüela-Alcalá, D., Pérez-Pueyo, Á., eta Fernández-Río, J. (2020). Evaluación 5. Referencias 430 formativa y modelos pedagógicos: modelo de responsabilidad personal y social y de autoconstrucción de materiales. *Revista Española de Educación Física y Deportes*, 430, 23-41.
- Jovingot, F. (1995). Can 5-6 year old children orientate themselves in a cave?. *Scientific journal of orienteering*.
- Karlin, M. eta Viani, N. (2001). Project-based learning. *Jackson Education Service District*.
- Kellert, S. R. (2005). Building for life: Designing and understanding the human nature connection. *Island Press*.
- Lladós, L. (2018). El contacto con la naturaleza ¿moda o necesidad? *Aula Infantil*, 96.
- López de Sosoaga, A. (2017). *Discurso y praxis de la Educación Física en el País Vasco en el contexto de la Escuela Primaria*. Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Louv, R. (2005). Los últimos niños en el bosque. Madrid. *Capital Swing*
- Louv, R. (2011). Volver a la naturaleza.: *Integral*.
- Moser, T., Jacobsen, E. B., eta Erdmann, R. (2005). Physical Education in Norway.

In International comparison of physical education: Concepts, problems, prospects.

Odden, A. (2008). Hva skjer med norsk friluftsliv?: En studie av utviklingstrekk i norsk friluftsliv 1970-2004. *NTNU*.

Orden de 15 de mayo de 2015, de la Consejera de Educación, Universidad, Cultura y Deporte, por la que se aprueba el currículo del Bachillerato y se autoriza su aplicación en los centros docentes de la Comunidad Autónoma de Aragón. (BOA, 29 de mayo de 2015).

Parlebas, P. (1987). Perspectivas para una educación física moderna. Junta de Andalucía.

Parlebas, P. (2001). *Juegos, deportes y sociedades. Léxico de praxeología motriz*. Paidotribo.

Parra, M. (2001). Programa de actividades físicas en la naturaleza y deportes de aventura para la formación del profesorado de segundo ciclo de secundaria, 35.

Parra, M. (2008). La acampada como medio educativo en primaria y secundaria. *Wanceulen E.F. Digital*.

Peñarrubia, C., Guillén, R. eta Lapetra, S. (2016). Las actividades en el medio natural en Educación Física, ¿teoría o práctica?. *Cultura, Ciencia y Deporte*, 11, 27-36.

Pérez, R. eta Caballero, P. (2009). Evolución histórica de las actividades físicas en el medio natural con fines educativos. *Materiales para la historia del deporte*, 7.

Rodríguez, F. (1984). *Animales salvajes*. Everest.

Santos, M. L. eta Martínez, F. (2011). Aprendizaje integrado de las actividades en el medio natural desde las competencias en la ESO. *Tándem*, 36, 53-60.


Saw, S., Hong, C., Chia, K., Stone, R. eta Tan D. (2001). Nearwork and myopia in young children. *Lancet*.

- Sutherland, S. eta Maureen, F. (2016). The Possibilities of "Doing" Outdoor and/or Adventure Education in Physical Education/ Teacher Education. *Journal of Teaching in Physical Education*.
- Utdanningsdirektoratet. (2015). Curriculum for physical education (KR01-04).
- Valencia-Peris, A., Devís, J., eta Peiró, C. (2014). El uso sedentario de medios tecnológicos de pantalla: perfil sociodemográfico de los adolescentes españoles. *Retos*, 26.
- Varela-Moreiras, G. (2013). Obesity and sedentarism in the 21st century: what can be done and what must be done? *Nutrición Hospitalaria*, 5.
- Venero, J. P. (2007). La clase de Educación Física como motor de cambio social. Reflexionando sobre actividades en la naturaleza, curriculum oculto y valores. *Retos*, 11, 53.
- Zulaika, L.M., Ros, I., Zuazagoitia, A., Echeazarra, I. eta Ibañez, I. (2020). Propuesta de intervención en la Federación Guipuzcoana de Montaña para aumentar la participación de niños y niñas. *Retos*, 37.

Eranskinak

I. Eranskina: Proposamen didaktikoko gutunak

I-a Eranskina: Mariren gutuna.



I-b Eranskina: Orientazioaren garrantzia.



Zorionak!

Lehenengo urratsa eman duzue, ongi etorri mendebalderako parkeara.

Inguru hau naturatik mugitzen ikasteko primerakoa da, eta Ama

Zurra aurkitu ahal izateko, naturan orientatzen jakitea

eginbestekoa da.

Natu eremuak aprobetxatu eta bertan mugitzen ikasten baduzue...

seguru hurrengo pista aurkituko duzuela!

I-d Eranskina: Parkeko ginkana eta puskatutako zatia.



Nonaino iritsi bazarete, naturan orientatzen eta mapa egoki
irakurtzen ikasi duzuela esan nahi du... Zorionak!!!

Azko hobetu duzue dagoeneko, orain prest gaudete hurrengo
urratsa emateko.

Azkenengo pista Salburuako hezegunean dauden izaki mitologikoak
emango dizute.

Salburuako hezegunean dauden izaki mitologikoak

II. Eranskina: Ebaluazio fitxak.

II-a. Autoebaluazio fitxa.

Izena: _____ Data: _____

1- Puntu kardinalak ezagutzen ditut:

BAI GUTXI GORABEHERA EZ

2- Iparrorratz bat zer den ezagutzen dut

BAI GUTXI GORABEHERA EZ

3- Badakit iparrorratza erabiltzen

BAI GUTXI GORABEHERA EZ

4- Mapa bat irakurtzeko gai naiz

BAI GUTXI GORABEHERA EZ

5- Naturan distantziak neurtzeko gai naiz

BAI GUTXI GORABEHERA EZ

6- Naturan egoteko beldurra daukat

BAI GUTXI GORABEHERA EZ


II-b. Koebaluazio fitxa.

IKASLEAREN IZENA	Egoki egiten du	Gutxi gora behera	Hobetu behar du
Iparrorratza egoki erabiltzen du			
Mapako elementuak interpretatzen daki			
Mapa eta iparrorratza erabiliz orientatzen da			
Naturan segurtasunez mugitzen da			
Naturan distantziak neurtzeko gai da			
Naturarekiko errespetua adierazten du			
Taldea lana egiten ondo konpontzen da			
Natur inguruneen garrantzia ulertzen du			

III. Eranskina: Mapak eta planoak


III-a. Puntu kardinalak jarraitu.

Jarraitu beharreko sekuentzia: Iparralde, Ekialde, Hegoalde, Ekialde, Iparralde, Iparralde.



★ Hasiera puntua
☾ Amaiera puntua

III-b. Aurkitu falta diren zatiak.



III-d. Salburuako ibilbidea: Izaki mitologikoak aurkitzen.



III-e. Izaki mitologikoen kartak eta informazioa



Basajauna

Basoko gizaki basatia da. Jentilekin ere lotu ohi da. Natura gizakiek inbaditutako lekuetatik babesteko gelditu zen lurrian. Garaia eta indartsua da, eta belaunetaraino iristen zaio ilea. Artaldeak eta artzainak babesten ditu. Ekaitzak hurbiltzen direnean, oihuka ematen die artzainei horren berri. Otsoen erasoetatik babesten ditu abereak, eta ardiek, hura hurbil dagoela antzematen dutenean, kaskabiloak mugitzen dituzte. Ordainetan, Basajaunek ogi puska bat jasotzen du ordain gisa artzainak lo dauden bitartean. Basoaren barruan bizi da, eta hainbat asmakizun egin dituela esaten dute, hala nola mendikateak, errota... Gorbeia basoetan bizi zen, Araban eta Bizkaian, Iratikoetan Nafarroan, eta baita Ataun inguruan ere. Basandere du emaztea, basoko andere basatia.

(informazioa euskalmitologia.com-etik eskuratua da,).

